

Bergarako astekarria

Berrigara


Auzoetako eskolak bizirik

Osintxuko
eskolako jaia
domekan



KU
JA
A
?

OPEL




TALLERES OLA

Olabarren auzoa z/g.
Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46 / 47.
BERGARA.

Zerbitzu ofiziala ARRASATEN:
TAKOLO AUTOAK, S.L.
Araba Etorbidea, 3 (Eskatu edifizioa).
Tfnoak: 79 05 86

OPEL KONTZESIONARIO OFIZIALAK, HOBEAK



**Zuretzat,
bidalketa sistema
fidagarri bat edukitzea
ez da aukerarik garrantzitsuena.**

Bakarra da.

BIDALI BEHARREKO ZERBAIT
GURE ESKUETAN JARTZEN DUZUNEAN,
AHALEGIN ETA ITXAROPEN OSOZ
EGINDAKO LANA, JASO DUGUN MODUAN
MERKATURATZEA NAHI DUZU.
BESTALDE, BEZEROEKIKO KONPROMISO BATZUK
BETE BEHAR DITUZU,
ALDI BEREAN HAUEK ERE
BERAIENAK BETE AHAL IZAN DITZATEN.
BIDALKETA,
ZEURE NAHIAREN ARABERA
EGITEA ESKATZEN DUZU,
BESTERIK EZ.
HORI DELA ETA, BIDALTZE SISTEMA EGOKI
ETA GUZTIZ FIDAGARRIA ESKAINTZEN DIZUGU,
HORRELA ZEURE BETEBEHARRAK
GARAIZ BETE DITZAZUN.
HORRELAKOXEA DUZU ENPRESETAKO PAKETEA
ATEZ ATE BANATZEN,
ERABATEKO ESPEZIALIZAZIOA
ETA NAGUSITASUNA LORTU DUEN ZERBITZUA,
GUIPUZCOANAREN ZERBITZUA. ZEUREA.



GUIPUZCOANA

Paketeen Garraio eta Banaketa



Beti garaiz.



Merke, merke..., garestiegi

Maite Aristegi / EHNEko Idazkari Orokorra

Garai batean hormonak baziren, ingelesez hitzegiten zuten behi-eroak azaldu ziren geroago, eta jenetikoki eraldatutako organismoak, hau da, transjeniko dontsuok debekatzeko borrokan genbiltzanean, hara non Europa garbiaren zilborra den Belgikan dioxinaz josiriko oilaskoak agertu zaizkigun. Ondoren mundu osora hedatutako amerikar inperioaren ikur den Coca Colak eragindako toxikazioak, eta baserriarraz salaketa eta eskaera, ganaduaren elikaduran sistematikoki antibiotikoak ematea behingoz debekatu dezaten, hau da, sendatzeko bakarrik izan daitezkeen..., eta tartean Pantaniren hematokritoak ere hizpide izan genituen.

Azken egunetan, platerean izan ditugun hainbat hitz kezkarri eta eskandalu larri, zerekin eta, jaten dugunarekin jolasten. Eta zalantza, eta ezjakintasuna, eta nora goaz eta zer jan daiteke, ustez garbi, aseptiko eta osasuntsuen bezala ageri zaizkigun herrialde eta jeneroak pozoinduak badaude? Izan ere, azkar eta ondo usoak hegan, eta merke-merke eta ona..., zaila benetan.

Eta, hala ere, 2. Mundu gerra oostean, Europa zaharrak Nekazaritza Politika Beteratua martxan jarri zuenean hartutako bide produktibista eta intentsifikatzaileari ezin utzi. Horren azken adibidea, aurtengo martxoan, hainbeste protestaldiren ondoren datozen sei urtetarako onartutako Agenda

2000. Eta agintariak, baserriarrek jasan beharreko prezioen beherakada justifikatu nahian, hainbat perla bota zituzten, hala nola: "erabaki hauek produktuen kalitatea bermatu eta batez ere kontsumitzailea faboretzuko dute, izan ere merkeago erosi ahal izango dute".

Ea nor aipatu ahal didan produkzio sektore bat, jenero hobea egiteko helburuz, hasteko produkzio kosteak jaitea erabakitzen duena. Ez baitago durorik lau pezetan ematerik. Gero, jakina, eskandalu sanitarioak nonahi eta gainera, geuk, kontribuitzaile bezala, politika negargarri hori finantziatu behar, gure osasunarekin jolasten duten produkzio horiek jasotzen baitituzte laguntza gehienak (hara hor linuaren eskandalua) eta bitartean, industria farmazeutikoa eta kimikoa poltsikoak ondo berotuta.

*"Erosteko orduan eskatu
garantia eta konfidantza
eman dezakeena. Bertan
denetik eta ona egiten dugu.
Ez izan beldurrik eskatzen
eta esijitzen. Eta jan lasai."*

Garai batean, Europa gosez zegoenean baliagarri zitekeena, aspalditik alferrikakoa eta kaltegarria dugula frogatuta dago. Ez bakarrik gero eta azkarrago eta merkeago produzitu nahi horrek gu bezalako baserriar txikiak Europa guzitik desagertarazi dituelako, herri eta paisaien dibertsitate, kultura eta ingurugiroan kalte izugarriak eraginez, baizik eta martxa honetan, bizi dugun aroa, elikaduraren bitartez gizarte osoa buru-hiltze edo suzidio kolektibo batera eramandakoa bezala ezagutu dezakegulako.

Garai da egoera honi irauli bat emateko. Orain, beren aurpegiak zuritu nahian hasi dira europar agintariak presakako erabaki batzuk hartzen, baina gizarte osoa izan behar da bultzatzaile, nekazaritza politikak benetan beste norabide bat har dezan. Ezjakintasuna eta arriskuaren aurrean, prekaizioaren oinarria erabiliz eta ezetza emanez: hormonei ez, transjenikoei ez, ganadu haragiz egindako pentsuez ganaduak elikatzeari ez, ganaduen elikaduran antibiotikoak sistematikoki erabiltzeari ez, barazkitan kimikoen erabilerari ez... Eta hori egunero gauzatzeko, hasi erosteko orduan alde batera uzten hala produzitutaokoen susmoa ematen digun guztia eta eskatu garantia eta konfidantza eman dezakeena. Bertan denetik eta ona egiten dugu. Ez izan beldurrik eskatzen eta esijitzen. Eta jan lasai. On egin deizula. **B**

■ barruan



Pepe Rei

Kazetaria

"Euskal Herrian eta Espainiako estatuan ikertzeko gai asko dago oraindik"

8.



Joseba Larrañaga

Pilotaria

"Txaparen gaina bilatzea dut gustuko, horrek arrisku handia dakarren arren"

21.



Joseba Zuzeta

Igerilekuetako begiralea

"Hondartza piztina baino gehiago gustatzen zait. Laga, Playa San Pedro..."

29.

orain dela...

BERGARAN GERTATUA

1646. Ekainaren 19an San Pedroko ganga berriaren exekuzio-eskrittura sinatu zuten elizako arduradunek Juan de Zaldua eta Juan Martinez Agirre azkoitiar hargin maisuekin. Ganga eraiki ahal izateko, Antonio de Jauregi Salazarrek donazioa egin zuen. Indietatik 2.000 peso bidali zituen, bakoitzak zortzi errealeko balioa zuelarik, San Pedroko obrak egiteko. Ganga bi urtetan eraiki zuten.

zozketak

BONO LOTO

Eguakitza 11

1-7-17-22-25-47 (osag.43/itz.7)

Astelehena 14

31-33-37-41-43-48 (osag 49/itz.9)

Martitzena 15

3-5-15-20-22-43 (osag.40/itz.8)

Eguaztena 16

3-4-15-16-30-40 (osag.8/itz.5)

PRIMITIVA

Zapatua 12

7-8-14-27-42-48 (osag.44/itz.2)

Domeka 13 Saritzarra

1-14-17-24-29-45 (osag.12/itz.4)

ONCE

Eguakitza 11: 29.082 (069 seriea)

Astelehena 14: 97.217

Martitzena 15: 33.897


Eguaztena 16: 91.833

BESTE BATZUK

M. Lagundiko ikasbidaia,
bi lagunendako afaria: 3.085

Eguraldia

Igeldoko metereologi behatokia



Goiz partean hodeiz estalita agertuko zaigu zerua zapatu eta domekan, baina eguerdi partean ostarte zabalak agertuko zaizkigu eta urdinguneak nagusituko dira. Tenperaturak zertxobait gora egingo du eta haizeak iparretik joko du arin.

Ilargiaren aldiak



Ilberri: ekainak 13



Ilgora: ekainak 20



Ilbete: ekainak 28



Ilbehera: uztailak 6

Eguzkia

Domeka, ekainak 20



Sortu: 06:46



Corde: 21:50

Temperaturak eta euria Bergaran

Luis Mari Agirre

	max. °C	min. °C	euria l/m ²
Eguena 10	18	13	-
Eguakitza 11	20	13	-
Zapatua 12	21	10	0,2
Domeka 13	20	14	-
Astelehena 14	23	7	-
Martitzena 15	27	9	-
Eguaztena 16	31	11	2,7

bertako berbak

Juan Martin Elexpuru

Askomodutako

Badaezpadakoa, eskaxa, txarra; izenaren aurretik jarrita.

- *Biar, askomodutako egualdixa eitten badau, oian geldittuko ga.*

- *Askomodutako lagunakin baiño bakarrik obeto ibiltzen da.*



JOSU OKINA

Farmaziak

Eguakitza 18:

MOZOS. San Pedro 4. Tf. 943 76 12 15.

Zapatua 19:

CAMACHO. Oxirondo 4. Tf. 943 76 11 74.

Domeka 20:

CAMACHO. Oxirondo 4. Tf. 943 76 11 74.

Astelehena 21:

PUY. Barrenkalea 25. Tf. 943 76 16 87.

Martitzena 22:

GUALLAR. San Antonio 5. Tf. 943 76 11 05.

Eguaztena 23:

ESTELLA. Matxiategi 5. Tf. 943 76 19 63.

Eguena 24:

MOZOS. San Pedro 4. Tf. 943 76 12 15.

Ogia

Domeka 20: Ogizun.

Telefonoak

OSASUNA / LARRIALDIAK

SOS deiak	112
DYA	943 78 71 57
Gurutze Gorria	943 76 55 76
Larrialdia	943 46 11 11
Anbulatorioa (txanda)	943 76 24 40
Anbulantzia	943 55 49 62
Udaltzaingoa	943 77 91 06
Ertzaintza	943 76 53 40
Suhiltzaileak	943 78 28 00
Osasun Etxea	943 76 24 40
Arrasateko ospitala	943 03 53 00
Asepeyo	943 76 16 43
Pakea	943 76 13 49
Angiozarko medikua	943 78 90 27
Antzuolako medikua	943 76 62 23

GARRAIOAK

Euskotren	943 45 01 31
PESA	902 10 12 10
Taxiak	943 76 19 50
RENFE	943 28 35 99

UDALA

Udaletxea	943 77 91 00
Udal Artxiboa	943 77 91 32
Igerilekuak	943 76 20 51
Kultur Etxea	943 77 91 58
Liburutegia	943 77 91 62
Mizpirualde Egoitza	943 76 13 68

BESTELAKOAK

Epaitegia	943 76 14 92
Erregistroa	943 76 13 15
Jardun	943 76 36 61
Jubilatu Etxea	943 76 21 40
Postetxea	943 76 26 85



DEBA GARAIA
INMUEBLE ETA FINANTZA AGENTZIA

Bergara / Arrasate / Elgoibar
Teleforo Aranzadi 2 behea
943 76 21 80 / 943 76 06 37

ileapaindegia

eder gela

— disdira —

Masterreka 7 • Tf. 943 76 00 55

ezpeleta
Ostalaritzarako
ehungintza

Ostalaritza eta egoitzetarako
mahai-zapi eta industri-ehunak

San Lorenzo 1, Bergara
Tf. 943 76 28 77/Tf. eta faxa: 943 76 17 09

zorion agurrak



Markel Labaka
Ekainaren 18an urtebete.
Urte askotarako!
Eukene.



Aitzol Iturbe
Ekainaren 20an 9 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak eta Olatz.



Eider Carrasco
Ekainaren 21ean 10 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Maialen Perez
Ekainaren 21ean 5 urte. Urte askotarako!
Etxekoak eta Jon Ander anaia.



Christian Rodriguez
Ekainaren 18an 2 urte. Urte askotarako!
Aita eta ama.



Roberto Etxezarreta
19an 45 urte. Urte askotarako!
Emaztea, Mikel eta Nerea.



Mikel Etxezarreta
Ekainaren 19an 3 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak eta Nerea.



Jon Sarasketa
Ekainaren 23an 6 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



Yasmina Moreno
Ekainaren 21ean 9 urte. Urte askotarako!
Gurasoak eta ahizpa Shere.



Ariane Martinez
Ekainaren 21ean 12 urte. Urte askotarako!
Etxekoak eta lagunak.



Izaskun Fernandez
Ekainaren 19an 5 urte. Urte askotarako!
Etxekoak.



Alatz Lazpita
Ekainaren 18an 3 urte. Urte askotarako!
Etxekoak eta lehengusak.



Jon Durana
Ekainaren 22an 2 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Asier Vicente
Ekainaren 19an 11 urte. Urte askotarako!
Etxekoak eta Poligonokoak.



Eli Mendizabal
Ekainaren 21ean urtebetetzea.
Urte askotarako!
Lagunak.



Imanol Garitano
Ekainaren 20an 6 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Idoia Bardezi
Ekainaren 24an urtebetetzea.
Urte askotarako!
Asier eta lagunak.



Omer Garcia
Ekainaren 21ean 5 urte.
Urte askotarako!
Aitxa eta ama.



Jesus Soto
Ekainaren 23an urtebetetzea.
Urte askotarako!
Familiakoak.



Unai Agirre
20an 9 urte. Urte askotarako!
Gurasoak, Jon eta Nerearen etxeok.

Datorren asteko alean
EKAINAREN 25a eta UZTAILAREN 1a
bitartekoan zorion agurrak argitaratuko dira.

hildakoak

BERGARA

Luisa Agirregabiria Zelaia
Ekainak 14, 67 urte
Digna Maria Barrutia Larrañaga
Ekainak 15, 55 urte
Tomas Gorosabel Askasibar
Ekainak 15, 74 urte

mezak

Santa Marina
Domekak: 11:30, 13:00.
Zapatuak: 19:00.
Lanegunak: 19:30.
San Pedro
Domekak: 09:30, 12:30.
Zapatuak eta lanegunak: 19:00.
Osintxu
Domekak: 11:30.
Zapatuak: 19:00.
Elosu
Domekak: 10:00.
Ubera
Domekak: 10:30.
San Juan
Domekak: 11:00.
Basalgo
Domekak: 13:00.
San Prudentzio
Domekak: 10:30.
Labegarieta
Domekak: 11:00.

San Lorentzo
Zapatuak: 20:00.
Angiozar
Domekak: 10:30.
Eguakitza: 19:00.
Monja Zaharrak
Domekak: 19:30.
Zapatuak eta lanegunak: 20:00.
Mizpirualde
Domekak: 11:45.
Zapatuak eta lanegunak: 11:45.
Mariaren Lagundia
Domekak: 10:00.
Zapatuak eta lanegunak: 09:00.
Antzuola
Domekak: 09:00, 11:30.
Zapatuak eta lanegunak: 19:30.
Uzarraga
Domeka: 10:00.

URTEURRENA

Toribio Aranguren Campos

Lehen urteurreneko meza domekan, ekainak 20, goizeko 12:30etan, San Pedron.



Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Eulogia Palomero Cabrejas

Lehen urteurreneko meza domekan, ekainak 20, goizeko 12:30etan, San Pedron.



Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Jose Inza Goenetxea

Lehen urteurreneko meza domekan, ekainak 20, goizeko 12:30etan, San Pedron.



Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

ANTZERKIA

► **Yllana taldearen "666"** antzezlana gaur 22:30etan Elorrioko Arriola aretoan.

MUSIKA

► **Orfeoi Gaztea eta Arrasateko Goikobalu Txiki abesbatzen emanaldia** domekan, hilak 20, 19:00etan Mariaren Lagundiko elizan.

► **Jam.** Gaur, eguakitza, **Ktulu**, 22:00etan. Bihar, zapa-tua, 22:00etan, **Mercyful fate eta Radio terror**.

ERAKUSKETAK

► **Azurren argazkiak**, oleo-ak eta eskulanak Nahikarin.

► **Riki Azkargortaren mar-goak** Bilboko Berta Belaza galerian (Arruskibar plaza, 5), ekainaren 25era arte.

► **Xabier De Zerioresen eskulturak** Logroñoko Ibercaga arte aretoan (San Anton, 3), domekara arte.

► **Jesus Mari Lazkanoren "Denborez" margo erakus-keta** Bilboko Rekalde aretoan, abuztuaren 29ra arte.

LEHIAKETAK

► **Kirol argazkien IX. Lehiaketa.** Zuri-beltzeko zein

ERAKUSKETA

Aritzeta abesbatzaren historia

Non: Kultur Etxeko erakustaretoan
Noiz: ekainaren 18tik 2 ra

Aritzeta abesbatzaren 20. urteurrenean, taldearen historia biltzen duen erakus-keta ikusgai izango da Kultur Etxean gaur-tik ekainaren 27ra bitartean. Aritzeta abesbatza 1979. urtean sortu zen eta ordutik emanaldi asko eskeini ditu han eta hemen, Euskal Herrian zein atzerrian (Italian, Holandan, Alemanian eta Belgikan). Erakusketan, egindako ibilbide luze horri errepaso emango zaio, besteak beste, Aritzeta sortu zeneko akta, 20 urteotan emandako kontzertuen argazkiak eta esku programak, egindako irteeretako argazkiak eta zenbait tokitan jasotako oroiga-

rriak, prentsan azaldutako artikulua eta beste hainbat material erakutsiko dituzte. Guztira, 600 lagun inguru igaro dira talde-tik bi hamarkada hauetan eta hiru zuzen-dari izan ditu: Alfredo Gonzalez Chirlaque (1979-86), Izaskun Labaien (1986-97) eta azkena Imanol Urzelai, duela bi urtetik taldearen zuzendaritzan dagoena. Gaur egun 40 bat lagun ari dira Aritzetan. Abesbatzak "San Martinen estanpa", "El Rey Leon", "Evita" eta "Titanic" ikuskizun musika-letan parte hartu du 1990eko hamarkadan.

Astebukaera honetan bi emanaldi es-keiniko ditu Aritzetak; batetik bihar, zapa-tua, Eibarko San Pio X.a parrokan, Xabier Zubizarreta Santa Marinako parroko ohiak bertan, 19:00etan, emango duen meza la-guntzen. Zubizarreta Bergaran egon zene-an, Aritzetari eskeinitako laguntza eskertu nahi dio taldeak biharko emanaldiarekin. Bestetik, domeka eguerdian Osintxuko eskolaren jaietan abestuko dute.



Aritzeta taldean 40 bat lagun ari dira gaur egun.

koloretako argazkiak Udaleko Kirol Zerbitzuan jasoko dira asteazkenera arte. Kategoria bakoitzeko onenentzat sariak izango dira. Argibideak 943 76 30 90 (Benito) zenbakian.

► **Aramaioko Sagitario Saria**, bidaiari haundien litera-

tur lehiaketa. Gutxienez Europako mendebaldera bidaiatu duen edozein pertso-nak har dezake parte eta egile-ak bidaian zehar bizitakoak kontaketa literario batean aur-keztu beharko ditu. Euskara eta gaztelarazko modalitateak bereiztuko dira eta kategoria

bakoitzeko kontaketa onenak 120.000 pezetako saria eskura-tuko du. Lanak (40 orrialdekoak gehienez) aurkezteko epea irai-laren 16an bukatuko da. Argibideak 945 44 50 16 zen-bakian.

► **Gerriko Ikerlan Sariketa.**

Irala 3
Telefona:
943 76 48 26



IRRINTZI
kafetegia

San Martzialearako

ZUBI-BERRI

JATETXEA

San Anton auzoa

**Paella edo makarroiak
+
oilaskoa edo saiheskia
=**
1.000 PTA

**KOTXEAN ERAMANGO
DUGU BERTARAINO!**

Deitu **943 76 30 24**ra!

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

Txahal, idi, txerri, bildots,
untxi eta baserriko oilaskoak.

Matxiategi 8 ☎ 943 76 15 09

Iklerlanaren gaia Goierriri dago-
kion edozein zientzi alorreko
izan daiteke eta lanak (euska-
raz) jasotzeko epea 2000. urte-
ko martxoaren 17an bukatuko
da. Irabazleak 500.000 pezeta
eta bigarrenak 300.000 pezeta
eskuratuko dituzte. Argibideak
943 16 02 82 zenbakian.

IKASTAROAK

► **Karate klaseak** 7 urtetik
gorakoentzat uztailean.
Argibideak Udaleko Kirol
Zerbitzuan: 943 77 91 67.

DEIAK

► **Ardi Beltza aldizkariaren
aurkezpena** gaur, eguakitza,
19:00etan UNEDeko aretoan.
Igor Egurenen eskutik.

► **Futbolin txapelketa** gaur,
eguakitza, 22:00etan Ollagorria
tabernan, LAMek antolatuta.
Izen-ematea doan. Hiru bikote
onenentzat 25.000, 10.000 eta
5.000 pezetako sariak.

► **Akulu AEK euskaltegian
EGAk ikastaroak** uztailean,
goizez. Argibideak 943 76 05
18 zenbakian.

► **Odol ateraldia** eguaztene-
an, ekainak 23, 18:30etan
Seminarioko lokalean.

► **Musika Eskola.** Datorren
ikasturterako matrikula epea
ekainera bitartean izango da
zabalik. Argibideak 943 76 57
80 zenbakian.

► **San Martzial.** Ekainaren
20rako konpondu egin beharko
dira apurtutako mahaiak.
Ordurako konpondu ez direnak
kendu egingo dira. Erromeria
pasa ondoren, Diputazioak
jarritako mahaiak bakarrik gel-
dituko dira, gainerako guztiak
kendu egingo dira eta.
Bestalde, egun horretarako
mahaiak hartu nahi dituenak
Kultur Etxera jo dezake astele-
henetik aurrera, 17:00etatik
21:00etara.

► **Industri birmoldaketak**
afektatutakoei eta **enplegua
erregulatzeko** espedienteak
jasan dituzten pertsona guztiei
zuzendutako bilera astelehene-
an, hilak 21, 17:00etan Eibarko
Portalea aretoan.

► **Bedelkarrek Veneziaara
bi pertsonendako bidaia**
zozketatuko du ekainaren 26an.
Irabazleak bi gaueko hotela,
gondolan paseoa eta 100.000
pezeta gastuetarako eskuratu-
ko ditu. Dagoeneko
Bedelkarreko dendetan eroske-
tak egiteagatik boletoak bana-
tzen dira.

► **Araba Euskaraz** domekan,
hilak 20, La Pueblan.

JAIK

► **San Juan auzoa.**
Eguenean, 24, meza 11:30etan,
Jubilatuetakoa abesbatzak
lagunduta. Meza ostean trikiti-
lariak eta Jubilatuetako abes-
batzaren saioa. Bertaratutako-
en artean luntxa banatuko da.

Z I N E A

KARTELDEGIA

BERGARA. Novedades

La trampa
Eguakitza: 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:30.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena, ikuslearen
eguna: 19:30.

ARRASATE. Alai zinema

Como caído del cielo
Eguakitza: 22:00.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:00.
Asesinato en 8 mm.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:00.
Astelehena: 19:00, 21:30.
Martitzena, ik. eguna: 19:00, 21:30.

EIBAR. Unzaga

Arlington road
Eguakitza: 22:15.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30, 22:15.
Martitzena: 19:30, 22:15.
Eguaztena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

EIBAR. Rialto

No mires atrás
Eguakitza: 22:15.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30, 22:15.
Martitzena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

ELORRIO. Arriola

Ejecucion inminente
Zapatua: 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:00.

Caricias

Eguena, zine-kluba: 20:15.

AZKOITIA. Baztortxo

Comportamiento perturbado
Eguakitza: 22:00.
Zapatua: 22:00.

Ejecucion inminente

Domeka: 17:15, 19:30, 22:00.
Astelehena: 20:00.

OÑATI. Santana

Aun se lo que hicisteis

el ultimo verano
Eguakitza: 22:30.
Zapatua: 19:30, 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

LA TRAMPA

Zuzendaria: Jon Amiel.

Aktoreak: Sean Connery, Catherine Zeta-Jones, Will Patton.

Erreparto ezagunarekin, intri-
gazko filmea errodatu du Jon
Amiel zuzendariak. *Robert
MacDougal* (Sean Con-
nery) lapur onena izatearen
ospea dauka. Horrela, Rem-
brandt margolariaren lanetako
bat New Yorkeko museo batetik
"desagertzen" denean,
bera da susmagarri nagusia.
Aseguru etxe bateko langile
batek (Catherine Zeta-Jones)
"Mac" harapatzeko asmoa du
baina uste baino zailagoa ger-
tatuko da lana. Bien bitartean
taldea osatuko dute, milioi asko-
kotako lapurretara gertatuz...



ASESINATO EN 8 MM.

Zuzendaria: Joel Schumacher.

Aktoreak: Nicolas Cage, Joa-
quin Phoenix, James Gandolfini.

Seven filmeko gidoiariak ida-
tzitako istorio poliziako hone-
tan Nicolas Cage (*Leaving Las
Vegas*) dugu protagonista na-
gusia. Hilketak jasotzen di-
tuen filme bat helduko da be-
re eskutara eta ikerketa uste
baino korapilotsuagoa gerta-
tuko zaio...

BERRIGARAK ez du gerta litezkeen emanaldi aldaketen erantzukizunik.

Ikastaro teoriko trinkoak euskaraz eta gaztelaniaz.

Ziklomotorreko lizentzia astebetean. AZTERKETARIK GABE!

Gaindi ezazu autoaren azterketa teorikoa 16 urterekin!
Zatoz eta informa zaitetz!

LARRAÑAGA
A U T O E S K O L A

Tf. 943 76 16 63

Ardi Beltza aldizkariaren aurkezpena egingo da gaur, 19:00etan, **UNE-Deko** aretoan. **Proiektu** honen bultzatzailetako bat **Pepe Rei** kazetari ezaguna dugu. **Egineko** ikerkuntza taldeko kide ohiak, besteak beste, **"La cloaca vasca"**, **"La red Galindo"** edo **"El jesuita"** liburuak eman ditu argitara. **Ardi Beltza** aldizkarian ikerkuntzari eta salaketari dagozkion arloak landuko dira.

G. Zerk bultzatu zaituzte aldizkari hau kaleratzera?

E. Bokazioak. Euskal Herrian eta Espainiako estatuan ikertzeko gai asko dago oraindik ere eta kazetaritza ikerkuntza egiten dugunok badugu lana. Aldizkariaren helburu nagusia hori da, egoera salagarriak jendeari aurkeztea. Aldizkarian, besteak beste, narkotrafikoa, epaitegiak, espetxeak, lan alorreko ekonomia, komunikazioa, Internet edota korrupzio ekonomikoa eta politikako gaiak jasoko ditugu.


G. Zeintzuk dira ikerkuntza kazetaritzaren ezauzgarri nagusiak?

E. Ikerkuntza kazetaritza da egiten den periodismorik onena baina, zoritxarrez, gure inguruan ez da gehiegi lantzen, horrelako kazetaritza hastapenetan dago hemen. Kanpoan gehiago jorrratzen da hemen eta Estatuan baino. Normalean erre-dakzioetan jende gutxi egoten da eta mediorik gabe oso zaila da ikerkuntza kazetaritza egitea, lan handia eskatzen duelako eta oso lan espezializatua delako. Oztopo asko izaten dira tartean eta politikoeekin edo poliziarekin arazoak izatea ere ohizkoa da.

Dena den, ikerkuntza kazetaritza egiteko informa-

PEPE REI
Kazetaria

"Euskal Herrian eta Espainian ikertzeko gai asko dago oraindik"



Pepe Rei hainbat urtetan izan da Egin egunkariko ikerkuntza taldean lanean.

zio iturri egokiak izatea, konpromisoa (ideologikoki non zauden argi eduki) eta ekonomia alorreko gaiak ondo menperatzea ezinbestekoa da, gaurko gizarte kapitalistaren oinarri nagusiak ekonomikoak direlako.

G. Presio asko izango dira ikerkuntzaren partetik...

E. Jendearen azpijokoak ikertzeko orduan ez dago

"Ikerkuntzan, informazio iturri egokiak izatea, konpromiso ideologikoa, eta ekonomiako gaiak menperatzea ezinbestekoa da"

inolako erretzasunik baina gure zeregina hori da, ahal den neurrian gaien muine-raino heltzea. Presioak kontuan hartu behar dituzu, lanaren parte dira baina ausarta izan behar da kazetaria salaketak egiteko orduan, inolako beldurrik gabe jokatzu. Bestela ofizioz aldatzea izango da onena. Paranoiak alde batera utziz eta zintzo jokatzu lan egin behar da, presioak alde batera lagata. Demanda judicialak eta horrelakoak heltzen badira, ikusiko da nork duen arrazoia.

G. Noiz kaleratuko da Ardi Beltza? Zeintzuk zarete proiektu honen atzean?


E. Azaro aldera kalera-tzeko asmoa daukagu baina oraingoz ez dugu inolako fetxa aurreratzerik nahi. Egin egunkariko ikerkuntza taldean ibilitakoak eta Egineko beste langile ohi batzuk ari gara proiektu hau aurrera ateratzeko lanetan. Hamabi bat lagun gabilta proiektu honetan murgildurik, baina kolaboratzaileak gehituz gero, 40 bat lagun izango gara.

Aldizkaria hilean behin kaleratuko da, 120 orrialde-tan zehar 17 sekzio ezberdin aurkituko dituzte irakurleek eta hasiera batean bi edizio argitaratuko dira, bat Euskal Herrirako (elebiduna, euskaraz eta gaztelerez) eta bestea Estaturako (gaztelerez). Martxan jarri ondoren, gure ideia aldizkaria katalanez eta galegoz ere kaleratzea da.

G. Zelako irakurlegoari dago zuzenduta?

E. Ikusiko da zer nolako jendeak erosten duen aldizkaria baina ezker abertzale-tasunaren inguruko irakurle-goari eta jende ezkertiarri interesgarria suertatuko zaiolakoan nago. Ikerkuntza kazetaritza ona egiten ahaleginduko gara. **B**

Bergarako udalbatza berria



Alkatea
Victoriano Gallastegi
EAJ/EA



Kontxi Irizar
EAJ/EA



Koldo Pereira
EAJ/EA



Juan Jose Arrieta
EAJ/EA



J. A. Etxeberria
EAJ/EA



Nere A. Zabala
EAJ/EA



Iñigo Alberdi
EAJ/EA




Felipe Altuna
EAJ/EA



J. M. Garitano
EH



Maider Larrañaga
EH



Mikel Eguren
EH



Aitor Goiti
EH



Yolanda Juaristi
EH



Aitor Aranzabal
EH



Martin Guridi
EH



Alvaro Esparza
PSE-EE



L. M. Espronceda
PP

UDAL HAUTESKUNDEAK BERGARAN

EAJ/EA:
3.843 boto, %43,4. 8 zinegotzi

EH:
3.437 boto, %38,7. 7 zinegotzi

PSE-EE:
711 boto, %8,0. Zinegotzi bat

PP:
492 boto, %5,5. Zinegotzi bat

IU:
262 boto, %2,9. Zinegotzi barik

Deba Garaiko alkategai bozkatuenak



▶ **ANTZUOLA**

Mireia Unamuno. EH
Udalbatza: EH: 4, EAJ: 3,
EA: 1, PSE-EE: 1



▶ **ELGETA**

Patxi Basauri. EAJ/EA
Udalbatza: EAJ/EA: 4,
EH: 3



▶ **OÑATI**

Angel Iturbe. EAJ/EA
Udalbatza: EAJ/EA: 9,
EH: 7, PP: 1



▶ **ARRASATE**

Xabier Zubizarreta. EH
Udalbatza: EH: 8, EAJ/EA: 6,
PSE-EE: 4, PP: 2, IU-EB: 1



▶ **ARETXABALETA**

Anjel Bergaretxe. EH
Udalbatza: EH: 6,
EAJ/EA: 5, PSE-EE: 1, PP: 1



▶ **ESKORIATZA**

Edorta Zubizarreta. EH
Udalbatza: EH: 5, EAJ/EA:
3, PSE-EE: 1, IU-EB: 1



▶ **GATZAGA**

Eugenio Otxoa
Leintz-Gatzagako
Hautesle Elkarte: 7

■ BALENTIN GABILONDO GIPUZKOAKO BATZARKIDE

Balentin Gabilondo (EH) izango da Gipuzkoako Batzar Nagusietako bergarar bakarra. 34 urte ditu eta EHNEko Gipuzkoako burua izandakoa da. EHk 3.393 boto jaso zituen domekan Batzar Nagusietarako.



■ EAJ-EA KOALIZIOAK ZINEGOTZI BAT GUTXIAGO

EAJ-EA koalizioak 3.843 boto jaso zituen domekan Bergarako Udalerako. 1995eko udal hauteskundeetan bakoitzak bere aldetik lortu zituenak batuta baino 348 gutxiago. Orduan, EAJk 3.163 boto lortu zituen eta EAK, berriz, 1.028. Bienak batuta, guztira 4.191. EAJk zazpi zinegotzi izan ditu orain arte eta EAK, bi; batura eginez, berderatzi. Datozen lau urteotan, berriz, zortzi izango dituzte: sei EAJkoak eta bi EAKoak. Beraz, zinegotzi bat gutxiago izango du EAJk.

■ EHk GORA NABARMEN

EHk, PSE-EEK eta PPK gora egin dute. Orain dela lau urteko udal hauteskundeetako emaitzekin konparatuz, gehien igo duena EH izan da (576 boto); PSE-EEK 77 boto gehiago lortu ditu eta PPK, berriz, 131 gehiago.

■ PPK ZINEGOTZIA

Bergaran ez da sekula izan PPKo zinegotzirik, baina domekan lortutako 492 botoei esker, Luis Martinez Espronceda, 40 urteko donostiarra, izango da lehenengoa.

■ VICTORIANO GALLASTEGI ALKATE

Gehiengo absolutua lortu ez arren, Victoriano Gallastegik beste lau urtez jarraituko du alkatez. EAJ-EAko zerrendaburuak, PSE-EEko zinegotzi bakarrarekin hitzartu edo, Legebiltzarrean bezala, EHrekin legealdirako paktua adostuko du.



Orain dela bi asteburu hasi ziren itxialdiak egiten eta astebukaera honetan eta hurrengoan ere egingo dituzte.

Alkatea aukeratzeko bozketa Angiozarren

Angiozar Bailarako Batzarreko kideak eta alkatea aukeratzeko bozketak izango dira domekan Angiozarko saloian. Angiozar Bailarako Batzarreko kideak aukeratzeko honako sistema jarraituko da: Angiozarko auzo bakoitzeko (Goimendi, Zabaletamendi, Maingdao, Par-teitti, Azkuneta, Errekaldea eta kalea) bi ordezkari aukeratu dira, kaleran izan ezik, hemendik lau ordezkari aukeratu dira eta, bestalde, Asentziotik bat aukeratu da. Hortaz, botoa emateko paperetan, hautesle bakoitzak bi izen ipiniko ditu norbere auzokoak direnak eta beste bat alkate izateko gustokoen duena. Angiozarren bizi diren 18 urtetik gorako guztiek daukate botoa emateko eskubidea eta, era berean, edozein izan daiteke aukeratu.

Hautesle guztiei banatuko zaizkie boto txartelak etxean eta domekan, goizeko 9etatik aurrera izango dute botoa emateko aukera saloian jarritako hautes-tontzian. Emaitzak egunean bertan jakingo dira eta auzo guztietan jarriko dira.

Presoen aldeko itxialdiak egiten ari dira Udaletxean

Maria Eugenia Graciaren alde agertu da Udalbatza

Bergarara Plataformak Maria Eugenia Gracia presoren egoerari buruz aurkeztutako mozioa onartu zuen Udalbatzak aho batez joan zen astean. Maria Eugenia Graciak kartzela zigorraren bi hirurenak beteak ditu eta kode penal berria aplikatu-ko balitz, kalean egon beharko litzateke. Honen aurrean, lau puntuko mozioa onartu zuen Udalbatzak. Lehenengoan, preso bergararrak jasaten duen

egoera ez legala salatzen da; bigarren, Gasteizko Legebiltzarreko Giza Eskubideen Batzordeari Maria Eugenia berehala libre lagatzeko eskatzen zaio; hirugarren, legea aplikatu dadin Kartzela Erakundearen aurrean behar diren gestioak egitea eta, laugarren, Udalak konpromisua har dezala onartutako erabakien jarraipen zehatza egiteko eta lanean segitzeko Maria Eugenia aske izan arte.

Bestalde, Aministiaren Aldeko Batzordeak, Senideak eta Euskal Presoak Euskal Herrira taldeak eta Bergarara Plataformak antolatuta, presoen aldeko itxialdiak egiten ari dira asteburu hauetan. Azken bietan egin dituzte eta honetan eta hurrengoan ere egingo dira. Itxialdiak Udaletxeko Pleno aretoan egiten ari dira, eguakitzean presoen aldeko enkarteladaren ostean sartu eta domeka iluntzera arte.

ARREGI

Eraikuntza materialak

Biltegia Tellerian, Labegaraietan.
Tf. 943 76 27 93

FERRETERIA
INDUSTRI HORNIDURAK

LAKOTA

Amillaga 1, 3 pabilioia. 217 posta kutxa
Telefonoak: 943 76 08 32 / 76 01 96
Faxa: 943 76 08 32

Paper pintatuak - Pinturak

A. ZANGITU

ORDUTEGIA:
8.00-13.00 eta 15.00-20.00

☎ 943 76 19 54 BERGARA
IRU: ☎ 943 79 11 71 ARRASATE

GKN-Lazpiur S.A. enpresa berriak 53 lanpostu sortuko ditu Labegaraietan

Jesus Jauregik Udal ar-txiborako egindako dohain-tza onartu zuen Udalbatzak aho batez. Besteak beste, *Crol*, *Apuntes de medicina deportiva*, *Kirolak*, *Deporte 2.000* eta *Fronton* aldizka-rien bilduma osoa eman dio Udalari Jesus Jauregi igerile-kuetako monitorea. Aldiz-kariok, egun desagertuta daude eta gehienak 60, 70 eta 80ko hamarkadan argi-taratu ziren. Espainiako ige-riketa federazioko entrena-tzaile eskolak 1967tik 1982. urtera arte kaleratu zituen zirkularrak ere eman ditu Jesus Jauregik.

Horrez gain, Jesus Mari Ugalde pintore bergararrari bi margo-lan erostea ere onartu zen Plenoan, hau ere aho batez. Hain zuzen ere, Eduardo Rosales Gallinak

Julian Blanc-i eta Martina Maiz-i egindako erretratoak dira Udalak erosiko ditue-nak. Zerga eta gastu guztiak barne, 2 milioi pezetatan erosi dira mihise gaineko bi olioak.

Begarako Eguneko Zentruko garraio zerbitzua kontratatze baldintza ple-guak ere onartu zituen Udalbatzak. Begarako Egu-neko Zentruko erabiltzaile-ak euren etxeko atarrietatik zentruko lokalera, Jubila-tuen egoitzara, eroateko zerbitzua da kontratatu nahi dena.

Beste puntu batzuk ere onartu zituen aho batez Udalbatzak. Indar politiko guztien artean adostasunik egon ez zen puntu bakarra Begarako Lazpiur S.A. en-presak eta GKN multinazio-



Industrialdea berrian kokatuko da 53 lanpostu sortuko dituen enpresa.

nalak elkarrekin sortuko duten enpresa berria diruz laguntzeko proposamena izan zen. Honetan, oposi-zioak kontra bozkatu zuen. GKN-Lazpiur S.A. enpresa berriari 50 milioi pezetako diru laguntza emango dio Udalak. Labegaraietako in-

dustrialdean eraikiko den lantegian, datozen urteotan 53 lanpostu (horietatik 46 eskulan zuzenak) sortzeko asmoa dauka GKN-Lazpiur S.A. enpresak. Proiektu ho-nen exekuzioak 1.054 milioi pezetako inbertsioa supos-tuko dio enpresa berriari.



Eibar-Gasteiz autopistaren kontra

Eibar-Gasteiz autopis-taren kontra protesta egite-ko manifestazioa egin zen joan zen zapatu iluntzean herriko kaleetatik zehar. Manifestazioa bailara maila-koa izan zen eta eskualdeko talde ekologistek, gazte tal-de eta asanbladek, Zutik-ek, HBk eta IU-EBk egin zuten deia eta jende askok hartu

zuen parte, hankapalu eta guzti. "Eibar-Gasteiz auto-pista zertarako" irakur zite-keen pankartaren atzetik abiatu ziren guztiak, eta beste pankarta batzuk ere ikus zitezkeen jendearen ar-tean, tartean Begarako Gazte Lokalaren aldekoena. Manifestazioa, plazatik abia-tu eta bertan bukatu zen.



Simon Arrieta plaza 2A behea ezkerre.
Tf. 943 76 71 19

AZPEITXI

Aranerrek 13 behea ☎ 943 76 55 00

Jatetxea

AGOITZ

Tapizdenda

Leizariako San Lorentzo 25
BERGARA
Tf.: 939 84 57 47

Berrigara

372 zenbakia.
1999ko ekainaren 18a.

Errotalde Jauregia, 20570 Bergara
Telefona: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Argitaratzailea: JARDUN Elkarte

Zuzendaria: Eneko Azkarate.
Erredakzioa: Eneko Azkarate, Edu Mendibil, Aitziber Azkondo.
Maketazioa: Iñaki Iturbe.
Publizitatea: Uxue Zabaleta.

Harpidetza: Itziar Kortabarria.
Testuen zuzenketa: Estepan Plazaola, Alex Labaien, Mirari Alberdi, Maripí Laskurain.

Erredakzio kontseilua: Miguel Angel Elkoroberezar, Alex Labaien, Gorka Elortza.
Komikiak: Bittor Rodriguez, Gorka Ortega & Jon Alvarez, Alex Ugalde, Unai Azkarate.

Kolaboratzaileak: Juan Martín Elexpuru, Josu Okina, Luis Mari Agirre, Imanol Sorondo.
Banaketa: Txantxangorri taldea.
Inprimategia: Gertu Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati).

Azala: Berrigara.

Tirada: 5.200 ale.
Copyright: BERRIGARA.
Lege gordailua: SS 50/91.
ISSN: 1130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain hartzen aldizkariari adierazitako esanetan eta iritzien erantzukizunik.

Erakunde hauen laguntza:



Berrogara Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia



Eusko Jauriaritzako Kultura saila

gutunak

Ezer adierazi nahi baduzu, ekarri edo bidali iezaguzu zure gutuna. Berrigara astekaria, Errotalde Jauregia z/g 20570 Bergara. Faxez: 943 76 29 77. Identifikatu gabeko mezurik ez da onartuko.

¡QUÉ FUNDAMENTO!

Aurten hirugarren urtia da egunero autobusa hartu eta Donostiara joaten naizela. Ezin esan zerbitzuak perfektuak dienik, ordutegixa gero eta eskaxaua, autobusak ixia harri arokuak, preziuak urtero gora eta ikasliontzako zerbitzuak behera..., keizaten hasi ezker, eukiko giñuke ze esan, baina azkenenguan ikusi eta entzun nebanak jota gogortuta laga ninduan!!

Allagau nitzan beheko estaziñora goizeko 8:30etan autobusa hartzeko; han Bergarako mutil bat zeuan bere gurgildun aulkixan jarririta. Ni heldu nintzanerako, Arrasatera jateko ordutegixa eskatuta zeukan eta erantzunai itxoi ten zeuan, bittartian bixok kanpua berriketan. Derrepente hor irutzen da Pesako langile bat ofizinatik eta esaten dotsa: "Mira, aquí tienes el horario, solo tienes un autobus que tiene rampa..., si quieres pasas otra vez luego y ya te diré... igual...".

Baina honek ze uste dabe, ba? Igual pentsatuko dabe egun guztia daukoula erongana jun da etorri ibiltzeko (ta gainera, fiu zaitte, gero igual "Qué pesados..." esan eta dana egingo dabe) eta gainera, oinndiokan gogorrau pentsatzen jatena, zela izan leiken, egun guztian zihar Arrasatera doiazten horrenbeste autobus egon eta..., bat bakarria sillak igotzeko aldapatxuekin!!

Egixa esan, holako gauzak egunero pasatzen die eta biharrik

eztakounok konturatu be ez ga eitten, baina uste dot badala ordua, danok keizaten hasteko holako egoeren aurrian. 2000. urtian horrenbeste gauza ein biha die... eta noizko aldatu biha die gauzok? Behin eta berriz esaten die gauzak eta jendiak oinndiokan aldapatxuen aurrian aparkatzen jarraitzen dau, gizarte honetan egunero normaltasunez ibiltzeko trabak han eta hemen..., egunero bizitarako sekulako oztupak!! la danon artian gauzak aldatzen diuttun!!

Mutil harek arrazoa zeukan bai... ¡Qué fundamento!"

Ia hurrengo baten eztaukatzen idazteko motiborik.

Eider Aranzabal

UDALETXKO ITXIALDIAK

Bergarako pleno aretoan itxialdien lehenengo txanda burutzen ari garenik Bergarako preso eta errefuxiatuen egoera salatu nahi dugu. Izan ere, hauteskunde kanpaina honetan etorkizun hobea eta oparoa agintzen diguten bitartean...

...Dispertsioa. Bere horretan dirau; preso gehienak ehundaka kilometrotara daude.

...Kartzelako egoera. Legeak zehaztutako gutxieneko bizi baldintzak ez dira errespetatzen. Une honetan, esate baterako, egoera larriena Fresnes eta Herrera de la Manchako espetxeetan pairatzen dutena da.

...Kalean izan behar direnak. Preso dauden bi bergararri zigo-

rraren hiru laurden aspaldi beteta izan arren legeak agintzen duen baldintzapeko askatasuna ukatu egiten zaie.

...Errefuxiatuak. Errefuxiatuta dauden herritarrei estatu espainiarrek bueltatzeko egindako eskaintzak ez ditu gutxieneko bermeak ere ziurtatzen.

...Prozesu judizialen inpunitatea. Mahai Nazionalako beste ki-deekin batera Bergarako alkatea izandako Jose Luis Elkororekin egindako prozesua. Honetan, nazioarteko zein estatuko legeek zehazten duten adierazpen-askatasuna eta epaiketak bete beharreko berme guztiak urratu egin dira.

Honengatik guztiarengatik, eta beraiek herritarrek diren alde-rik BERRIGARAZ baliatzeko eskubidea dutelako, egoera honekin bukatzeko konpromisoa hartu eta preso eta errefuxiatuei ahotsa eman diezaiezuela eskatzen dizuegu.

N.P. (51.063.983). Bergarako Udaletxean itxitaokoen izenean

MILA ESKER ZALETUEI

BKEko nesken futbol taldeko entrenatzaile eta jokalariek esker-erak eman nahi dizkie Mutriku Futbol taldearen eta Bergara Kirol Elkartearen arteko Kopako final erdietako partidua ikustera Mutriku joan ziren bergarar zaletu guztiei. Mila esker emandako animoengatik, nahiz eta ezin garai-pena zaletuei eskaini. Datorren urtean izan beharko da.

BKEko nesken futbol taldea

tira biraka: gorka ortega & jon alvarez



■ atrebentzia ezpada

ETB-1ean ematen ari diren "Ertzainak" telesaila ikusten dozu? Zer iritzi daukazu?



Jon Mendizabal

Normalian eguen gauetan kalera irtetzen naiz eta ez dot ikusi orain arte. Badakit Bergaran grabatzen dabela baiña ez daukat interes berezirik.



Terese Jauregi

Lehenengo kapitulua eta beste baten erdixa ikusi dot. Hemen egindakua dala-edo, asko gustatu jaten: herriko lekuak, jende ezaguna, bertako hizkera...



Kontxi Gallastegi

Ez dot ikusi, ordua ez jate-lako ondo etortzen. Entzun dotenez, telesaila atsegiña da eta hemengo hizkera erabiltzen da. Baiña berandu samar izaten da.



Martin Ibañez

Bai, kapitulu gehixenak ikusi dittut eta gustatzen jat, Bergaran egitten dalako eta jende ezaguna agertzen dala-ko... Baiña nik ez nuke nahi hor agertzirik.



Jose Agirre

Telebisiñua ez dot ikusi be egitten. Teletestua irakurtzen dot piskat eta kitto. Entzunda daukat "Ertzainak" Bergaran grabatzen dala baiña ez dot ikusi ondio.



Izar Mendikute

Lehenengo kapitulua grabatu neban, ordu horretan ez naizelako etxian egoten. Tramia jarraitu baiño, gehixago fijatzen nintzan zein jende agertzen zan.

■ bai, esan!



Gertaeraren bat salatu edo txalotu nahi izanez gero, deitu 943 76 03 97ra. Identifikatu bariko mezurik ez da onartuko.

BEHEKO ESTAZIOKO APARKELEKUA

Bergarako alkateari eta gobernuko kideei bere haserrea adierazteko deitu digu Garbiñe Ibabek. Autoa aparkatzeko hamaika arazo izaten du egunero lanetik bueltan. Herrian zehar hamar buelta eman ondoren, azkenean, Ninika aurrealdeko aparkalekuan lagatzen ei du autoa. Baina oraindik erretiratu ez dituzten zezen plazako andamioekin eta harearekin egiten du topo.

Argiñek ez du ulertzen jaiak amaitu zirenetik 21 egun pasatu direnean, oraindik traman-kuluak kendu ez izana eta Udalak ardura gutxi erakutsi duela dio. Zezen plaza eta harea bertan laga badute, zezena ere zergatik ez duten laga galdetzen du Garbiñek.

■ ikuspuntua: **beñardo kortabarria**

La rentrée edo itzulera

Pare bat urte badira Berrigararen ezer idazten ez dudala. Aste honetan iritsi zait gonbidapena, ea berriro idatziko ote nuen. Noizko? eta erantzuna: biharko idatziko bahu... beno, ohiturak ez dira asko aldatu behintzat. Lasai hala ere, ez naiz bide horretatik abiatuko, ondotoxoz ezagutzen baitut herri astekariaren martxa.

Eskerrak hauteskundeak pasa berri diren, horrek ematen dit eta -beste ezertan pentsatzen jarri baino- zerbait idazteko aitzakia. Emaitzak ikusi eta gero balorazio ugari egin daiteke, egin ere egin dira eta seguruen gehienak kokoteraino egongo zarete. Neu ere, aitor-



tzen dut, dagoeneko aspertu naiz kopuru -eta ondoriozko balizko ezkontza- dantzarekin. Hala ere, bada horretan guztian ulertzen ez dudan zerbait: PSOeren botoa, hain zuzen.

Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako pseudo-sozialisten aldeko botoa uler dezaket, abertzaleen aurkako defentsa-sistemaren isla izan baitaiteke. Baina eta Espainiakoa? Zer gehiago egin behar du alderdi batek botorik ez jasotzeko? Pentsa, Borrel-en auzia bera gertatu zela hilabete eta erdi besterik ez da pasa, eta guztion oroimenean egon beharko lirateke

sozialisten korrupzio kasuak, GALEko afera eta abar. Zeri erantzuten dio boto horrek? Ezin dut ulertu, benetan. Ez da ezkertiarra, ezin da PSOE egin duen gizartearen ongizatearen aldeko lanagatik izan -ez baitu egin, guztia bere poltsikorako egin du-, ez da alderdi-egitura sendo, zintzo eta gardenaren ordaina... bateren batek azalpenen bat balu eskertuko nioke.

PSOeren botoarena ez ulertzeaz gain, nire herrian, Antzuolan, bada beste kontu bat. Esan didatenez -ez dakit seguru-, hauteskunde europearretan Inestrillasek boto bat jaso zuen. Ez ulertzeaz gain, horrek kezkatu eta arduratu egiten nau. Antzuolarrok ez dugu horrelako antzuolarrik merezi, ezta munduak ez horrelako eta ez antzerako mundutarrik ere. **IB**

■ asteko menua: **azpeitxi jatetxea**

Txipiroiekin betetako piperrak



INAZIO BELDARRAIN
Azpeitxi jatetxeko sukaldaria

OSAGIAK (4 lagunentzat)

PIPERRAK BETETZEKO:

- 10 txipiroi
- 8 pikillo piper gorri
- Goilarakada bat gurin
- Kipula laurden bat
- 3 berakatz ale
- 100 gramo irin
- Litro laurden esne
- Gatza

SAL TSA EGITEKO:

- Kipula erdi
- Piper berde bat
- Porru bat
- 2 berakatz ale
- Azenario bat
- Bi pipermin
- 3 goilarakada Oliba olio
- Baso erdi tomate saltsa
- baso erdi ardo zuri
- Kopa erdi koñak
- Koskor bat ogi siku
- Litro erdi ur
- 2 sobre txipiroi tinta

PRESTAKETA

PIPERRAK BETETZEKO:

- Sartagin batean, gurina berotzen ipini.
- Bertan, ondo txikitutako kipula potxatzen jarri.
- Kipula potxatu ostean, berakatz txikitua eta txipiroi txikitua gehitu.
- Irinarekin eta esnearekin bexamela egin eta gatza gehitu.
- Guztia nahastu eta piperrak bete.

SAL TSA EGITEKO:

- Oliba oliotan, kipula, piper berdea, porrua, berakatzak, azenarioa eta pipermin berdeak potxatu.

- Ondoren, tomate saltsa, ardo zuria, koñaka eta ogi siku birrindua gehitu.
- Dena urez estali eta egosten laga.
- Bol batean, ur apur bat ipini eta txipiroi tinta gehitu.
- Ondo nahastu eta beste ontzian egin dugun saltsa gehitu.
- Guztia txikitu eta txinotik pasatu.
- Piper beteak irinetan eta arrautzetan pasatu eta oliba oliotan frijitu.
- Mahaira ateratzeko, plater ertzean piperrak ipini, erdian txipiroi tinta eta gainetik perrexil pikatua bota.

■ bergarako gordailutik

CARACASEKO GIPUZKOARREN ELKARTEA

Imanol Sorondo

Takina da Caracaseko Gipuzkoarren Elkarteak Donostian zeukala bere egoitza, baina Konpainia horretan akzioak zeuzkaten bergararrak bazeuden. Venezuela XVIII.ean Espainiako erregeen menpe zegoen arren, holandarrek ziren jaun eta jabe beren itsasontzi, gudari, pirata eta kontrabandoarekin. Gipuzkoarrek Felipe V. erregearengandik lortu zuten Caracaseko Elkarte sortzea. Hasiara oso zaila izan zen holandarren eta hauekin bat zetozen Venezuelako aberatsen aurka, baina gerora negozio handia izan zela aitortu behar. Zailtasunekin batera, dirutza handien eta itsasontzi askoren inbertsioa egin zuten hemengoek, 80ra heldu omen zen itsasontzien kopurua, baina etekina ere paregabea izan zen.

Hango hiri nagusien artean, merkataritza handia sortu zen eta handik hona gauza ugari eta baliotsuak ere ekartzen zituzten: kakaoa, zilarra eta abar; hemendik hara eramanez ere eskasian zeuzkaten gauzak. Esaterako, esan dezagun 1730.etik 1748.eraingo 858.978 kakao anega ekarri zituztela.

Gauzak ondo zihoazela nabaria zen hango portuetako mutur luzatze-etan eta babesteko sendotu ziren harrisetan; hemen, Donostiako Santa Maria eliza berreraiki zen eta han hemenka almazena ugari eta berritu. Urte batzuetan bi eta hiru itsasontzi joan ziren; sei eta zazpi besteetan; Pasaiaiko portuak garrantzi handia hartu zuen. 1730.etik 1735.era ez zuten ezer banatu akzionisten artean, baina geroztik 1742. urteraino ipinitako diruak %160 gehiago jaso zuen.

Ez zen dena arrosa koloreko izan; urte horretan bertan ingelesek Kubako hiria oztopatu zuten alderik alde eta Caracaseko Gipuzkoarren Elkarteak bost itsasontzi prestatu zituen; bederatzi orduren ondoren irabazi zuten, baina S. Inazio itsasontzia galdu. Askotan eramanez behar izan zituzten gudariak eta kainoiak, eta itsasontziak prestatu ere bai. **B**

■ adituen esanetan

Udako lehen eguzki izpiak

LUPE GARCIA, *dermoestetizista*

Jendeak nahi izaten du udako lehen eguzkiak heldu bezain pronto beltzarran egotea eta eguzkiarekin kontuz jokatzea behar da. Lehenbizi pertsonaren fototipoa aztertu behar da, zer nolako babes komeni zaigun jakiteko. Babes kremak erabiltzea ezinbestekoa da eta azala, ilea, begien kolorea eta eguzkitan erretzeko dugun joera kontuan izaten dira fototipoa zehazteko. Bestalde, botikak hartzen ari direnek ezin dute eguzkirik hartu, medikuaren baimenarekin ez bada. Era berean, haurrek erretzeko arrisku handiagoa daukate eta eguzkitan denbora laburrean egotea gomendatzen zaie.

Eguzkitan egoteko ordurik "arrisku-tsuena" goizeko 11etatik arratsaldeko 4ak bitartekoak dira. Dena den, neurrian hartuta, eguzkitan egotea gomen-dagarria da, izpiei esker D bitamina jasotzen dugulako eta animoarengan ere eragin zuzena duelako.

Eduerarekin eta araiarekin gertatzen den moduan, urak ere lupa efektua sortzen du eta, beraz, bainua hartu ostean ondo sikatu eta berriz ere babes krema ematea komeni da. Keizpetan gaudenean ere ez dago soberan. Beroak azaleko ura kentzen digunez, etxera heltzean azalak eskertuko du krema hidratanteak erabiltzea. **B**



Udaberriko kontzertua

Pilota jaialdi onenen pareko jendetza bildu zuen domekako **Udaberriko Kontzertuak Frontoian**. Kontzertu honen 11. edizioak ikusmin handia piztu zuen eta Musika Eskolako ikasleek beren maila erakutsi zuten guraso, lagun eta musika zaletuen gozamenerako. **Musika Eskolako Orkestra, Akordeoi Orkestra, Haurren abesbatza, Koral taldea, Gazteen Banda eta kantu ikasleak** izan ziren eszenatokian eta jaialdiari amaiera bikaina emanez, bukatzeko **"Oliver!"** musikalaren selekzio bat eta Musika Eskolako ereserkia eskaini zuten guztiek batera.



Europako Ugaztunen Kongresuan

Iñaki Irizar bergarar biologoa maiatzaren 29tik ekainaren 3ra bitartean **Finlandiako Jyväskylä hirian egindako Ugaztunen Europako 3. Kongresuan izan da**. Iñakirekin batera, **Aranzadi Zientzia Elkarteko** beste bi lagun izan ziren: **Idoia Villate** errenteriarra eta **Jorge Gonzalez** naparra. Hirurek desagertze dagoen **elur-lursagua** izeneko ugaztun txikiaren kasua azaldu zuten kongresuan. Guztira, Europa eta Ipar Ameriketako **400 biologo** elkartu ziren bertan. Orain 10.000 urte inguruko glaziazio garaian oso zabaldua zegoen elur-lursagua eta gaur mendi puntetan aurki daiteke bakarrik. Iñakik eta bere lagunak ugaztun honen poblazioa aztertu dute Aizkorin. Bestalde, Finlandiako basogintza aztertze aukera ere izan zuten; basoen esplotazioa eta faunaren kontserbazioa bateratzeko lan aipagarria egiten dutela adierazi digu Iñakik.

Txakurrak trebatzen

Joan zen astean **txakurrak trebatzeko ikastaroari hasiera** eman zitzaion. Udalak antolatutako ikastaro honen helburua txakurren jabeek animaliak kalean ondo portatzeko teknika batzuk erakustea da. Horretarako, oinarrizko ordenak erantzuten jakiteko ariketak landuko dituzte partaideek **Raul Ortuzarren esanetara** datorren uztailaren 2ra bitartean, astean hiru egunez **San Martzialen**. Ikastaroan bost lagun eta beraien txakurrak ari dira eta plaza mugatuak zirenez, Udalak irail aldera horrelako beste ikastaro bat antolatzeko asmoa dauka.



Arantza
Erlojutegia

Barrenkalea 4
943 76 10 04



KORTA-ZAR
Txokolategia

Pintxo eta ogibarteko
espezialitatea

Barrenkalea 16 ☎ 943 76 20 62

Ganbara
TABERNA

Heure erara
ibiltzeko!

Irala z/g. Tf. 943 76 55 75

Auzoko eskolak

Gaur egun Angiozarren eta Osintxun bakarrik daude eskolak



“Osintxuko Eskola bizirik” lemapean, hainbat ekitaldi izango dira Osintxun astebukaera honetan. Hainbat urtetan itxita egon ondoren, aurtengo ikasturtean berriro zabaldu zen Osintxuko eskola eta bertako guraso elkarteak eskolaren etorkizunari eutsi nahi dio. Bestalde, 1960ko hamarkadan Osintxuko eskolan lanean izan ziren Pilar Lonarbide eta Don Lucio De la Presa senar-emazteek bere ikasle ohien omenaldia jasoko dute domekan.

Osintxuko eskola aspaldikoa da. Joan zen mendeko hainbat agirik eskolaren berri-ematen dute. Horrela, 1892-94 bitartean Don Lorentzo Lete genuen bertako irakasle. Kuriositate modura, Don Lorentzok 35 pezetako soldata zuen garai hartan. Era berean, eskolak 1920ko hamarkadan 80 ikasle zituela jakin badakigu eta 1934ko beste agiri batean Udaletxeari eskola egiteko egindako eskaera jasotzen da. 1956-57 ikasturtean “eskola berria” izenez ezagutzen dena (gaur egunekoa) zabaldu arte, hainbat lekutan kokatu zen eskola, tartean elizaren gaineko lokalean. 1970eko hamarkadaren hasierara arte neskak eta mutikoak gela ezberdinetan bereizten zituzten.

Sasoi hartan guraso elkarteak bulztaturik eta Don Jose Etxeberria apaizaren laguntzaz, Osintxuko Ikastola zabaltea lortu zen. Ordurako Elgoibarren Ikastola bazegoen eta bertako talde bat eta osintxuarrak elkarlanean aritu ziren Ikastolaren proiektua aurrera ateratzeko. Erakunde ofizialen aurrean, katekesi klaseak emateko gela izango balitz moduan zabaldu zen. Horrela, gaur egun Osintxuko ludoteka dagoen lokalean hasi ziren euskarazko klaseak ematen lehen aldiz eta, beraz, bi eskola egon ziren martxan aldi berean; alde batetik Ikastola eta bestetik aspaldiko eskola nazionala. Bost bat urtez biak batera izan ziren zabalik. Eskola nazionalako andereñoa Señorita Asun zen eta Ikastolakoa, berriz, Karmele Gisasola. Ikastolaren lehendabiziko urtean 6 ikasle zituen Karmelek eta nazionalen dozena bat zeuden matrikulatuta.



PINTURAS BERGARA S.L.

- INDUSTRIARAKO PINTURAK
- APAINKETARAKO PINTURAK
- GARBIKETAK
- ERROTULOAK

Aranerrika 32 behea. BERGARA. Telefonoa: 943 76 10 65. Faxe: 943 76 11 40.

GURIA
Taberna

Bidekurutzeta 5
☎ 943 76 20 34



ESKOLA ETXETIK GERTU

1976-77 ikasturterako Osintxuko Ikastolako haurreskolako gelan 20 haur zeuden eta nazionalako gelan bi haur besterik ez. Piskanaka-piskanaka Ikastolak indarra hartu zuen auzoan. 1978-79 ikasturtean 2 urtetik 5 urtera bitarteko 23 haur ziren Ikastolan eta nazionalako gelan, 4 urtetik 8 urtera bitarteko

1960. urte inguruan Osintxuko eskolakoak Arantzazura egindako irteeran. Eskuman, domekan omenaldia jasoko duten Don Lucio De la Presa eta Pilar Lonarvide.

25 ikasle ziren. Eskola nazionalaren azken urteak izan ziren haiek. 1980ko hamarkadaren hasieran, Aranzadi Ikastolak Osintxuko Ikastolaren ardura hartu

zuen bere gain eta 1993-94 ikasturtera arte iraun zuen zabalik. Auzoko ikasle guztiak bertara pasatu ziren orduan. Aranzadi Ikastolak ikasle bakoitzeko hainbesteko dirulaguntza jasotzen zuen orduan, baina azken urteetako ume kopuruarekin eskola itxi beharrean aurkitu zen.

Handik urte batzuetara Osintxuko guraso talde batek eta Txurumilo kultur taldeak eskola berri zabaltzeko ideari eutsi zioten. Ikastolan hasteko adinean zeuden umeen gurasoek beharrezkotzat jo zuten beraien seme-alabak etxetik gertu ikasteko aukera izatea. Guraso elkarteak kideen iritziz, "ezinbestekoa jotzen genuen auzoan eskola izatea, umeen erosotasunerako eta baita auzoa bizirik mantentzeko ere. Argi dago umeen zaratak bizia ematen diola auzoari. Txurumilo taldea konturatu zen sekula baino haur gehiago zirela hemen eta, beraz, laguntza eske hasi ginen. Azkenean, baiezkoa eman ziguten eta eskola San Martin ikastetxeko gela bat moduan hasi da martxan aurten. Jendeak, beharbada, ez du apreziatzen eskolak zer suposatzen duen, baina herriari bizitasun handia ematen dio. Gainera, azkenaldian jende gaztea etorri da Osintxura bizitzera eta uste dugu eskolari eutsi egin behar zaiola". Irune Zelaia andereñoarekin bi eta hiru urteko sei ume dabilta Osintxuko eskolan gaur. Eskolak bi gela ditu eta bietako bat erabiltzen da bakarrik. Guraso elkarteak erabiltzen ez den gela txukundu eta kultur zereginetarako erabiltzea nahiko luke.

OMENALDIA DOMEKAN

Esan bezala, astebukaera honetarako hainbat ekitaldi prestatu dira. Alde batetik, eskolan argazki eta eskulan erakusketa izango da zabalik gaurtik domekara bitartean, gaur eta bihar 18:30etatik 20:30etara eta domekan

ESKOLA ETA HERRI TXIKIAK BIZIRIK

Garai batean herriko auzo gehienetan eskolak bazeuden ere, gaur egun Osintxuko gela eta Angiozarko eskola besterik ez dira geratzen. Osintxuko gela, esan bezala, San Martin ikastetxearen menpe dagoen bitartean, Angiozarkoak autonomia propioa dauka; Gipuzkoan diren 26 eskola txikietako bat dugu. 1986. urtearen inguruan eskola txikiak berrindartzeko ahaleginak egin ziren eta eskola hauetako guraso elkarteek federakuntza bat eratu zuten. Eskola txikiak nekazal giroko herri edo auzoetan kokatuta daude, eskola publikoak dira denak, D ereduja irraitzen da guztietan eta kasu gehienetan udalen babesa izaten dute. Angiozarko eskola 1992an berritua zen.

Joan zen domekan, "Eskola txikiak bizirik, herri txikiak bizirik" lemapean, Eskola Txikien festa ospatu zen Alkizan. Jai honen 12. edizioan eskola txiki guztieta-

ko ordezkariak izan ziren, tartean Angiozarko irakasle eta ikasleak. Gaur egun 13 ikasle ari dira Angiozarko eskolan, eta bertan haurreskola eta OHoko 6. mailara bitarteko ikasketak egiten dituzte. Anselmo Vega "Mito" irakaslea 1985etik ari da Angiozarren lanean. Bere hitzetan, "Udaletxea daukaten herri txikietan batere ere eskola txikiek gora egin dute azken urteotan. Gertatzen da jende asko joan dela horrelako herri txiki eta auzoetara bizitzera eta horrek eskolengan eragin zuzena izan du. Ume gehiago dago horrelako tokietan eta gurasoek interes handia azaldu dute eskola txikiak bizirik mantentzeko".

"Mito"ren ikasleek domekan Alkizan egindako jaialdian emanalditxo bat eskeini zuten eta egunotan, beraiek landutako gidoiari jarraituz, bideoan filme bat grabatzen ari dira Angiozarren bertan.



☎ 943 76 20 61



LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.

Zerkaosteta 1 eta 2 ARRASATE Tf. 943 79 27 27 / 943 79 13 55



11:00etatik 13:00etara. 1920. urtetik hona ateratako 70 argazki dira guztira eta eskulanei dagokienez, Don Lucio De la Presa eta Pilar Lonarbideren ikasleek bere garaian egindakoak dira ikusgai jarriko direnak. Hain zuzen ere, ikasle-

engandik beraiengandik sortu zen euren irakasle izandakoei omenaldia egiteko ideia. Eskola berria inauguratu zenean, 1956-57 ikasturtean hasi ziren biak Osintxun lanean eta 14 bat urtez izan ziren bertan klaseak ematen.

Osintxuko eskola berria 1956-57 ikasturtean inauguratu zen. Aranzadi Ikastolak bere gain hartu zuen 1980. urte inguruan eta 1994an itxi egin zen. Aurten berriz zabaldu da San Martin ikastetxearen ardurapean

Argazkiotan, Osintxuko eskolan ikasitako bi talde. Goian, Doña Angela andereñoa bere ikasleekin 1934 urte inguruan. Behean, Karmele Gisasolaren klasekoak, 1982-83 ikasturtean.

Domekan Pilarri eta Don Luciori omenaldia egingo zaie, eskolako jaiarekin uztartuz. Goizeko 11:30etan Aritzeta abesbatzak lagundutako meza izango da Osintxuko elizan, ondoren txistularien laguntzarekin eskolara arteko igoera egingo da eta eskolako sarreran Xamatz dantza taldeko kideek ohorezko aureskua dantzatuko dute. Jarraian, 13:45etan, Aritzeta abesbatzak saioa eskainiko du Frontoian eta ondoren, 14:30ak aldera, herri bazkaria egingo da Frontoian bertan. Guztira, 100 bat lagun bilduko dira, tartean Don Lucio eta Pilarren ikasle ohiak. Udaleko agintariak ere izango dira domekan Osintxun eta bazkalostean hainbat opari jasoko dituzte omendutako bi lagunek. Bukatzeko, Arno taldearekin erromeria izango da. **B**

**EDEL
TAPIZDENDA**

Etixerako artikuluetan aukerarik haundiena eskaintzen dizugu

Alfonbrak, kortinak, kortinoiak, koltzak, edredoak, etab.

Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.

Bidekurutzeta 14 BERGARA

Kizkur



Ileapaindegia
Estetika
Solariuma

Bolu 51. Bergara. 943 76 50 32

ARREGUI, E.M.



ARROZTEGIA


ARROZLAN MEKANIKOAK
SUKALDEKO ARMAIRUAK
HORMA ARMAIRUAK
ATEAK, eta abar
TARIMAK-PARKETAK
NEOPRENOZKO JUNTADUN
EGURREZKO LEIHOAK
PVCzko LEIHOAK

Urteaga 20 ☎ 76 11 73
Erakusketa: Bidekurutzeta 38

POL-POL

Taberna

☎ 943 76 07 78



IRURA EKAINAK 5
LARUNBATA

AMETSA
TRINKETEAN

MIKEL
UZKUDUNEN

OMENEZKO

PILOTA
ZAIALDIA



ARRATSALDEKO

18:00etatik

AURRERA

**HAINBESTE URTEZ EUSKAL PILOTAREN ALDE,
XAREAREN ALDE ETA IRUGARREN ALDE EGINDAKO
LANAGATIK**

ESKERRIK ASKO MIKEL!

EGITARAUA:

TRINKETEAN 18:00etan

XARE PARTIDAK

LOPETEGI / LARRARTE
&
LARRARTE I / BORTEREAU

ARTOLA I / FUNOSAS
&
ITURBE I / **UZKUDUN** (MOLINA)

AIZPURUA JATETXEAN
21:00etan

AFARIA
BERTSOLARIAK
TRIKITILARIAK
OMENALDI EKITALDIA

Oharra: afarirako txartelak
herriko tabernetan salgai. **2.500 pta.**

ANTOLATZAILEA: AMETSA PILOTA ELKARTEA



BOLU GIMNASIOA

Bolu gimnasioan baduzu zer aukeratu!

	ASTELEHENA	MARTITZENA	EGUAZTENA	EGUENA	EGUAKITZA
07:30	Mantenimendu gimnasia <i>Iñaki</i>		Mantenimendu gimnasia <i>Iñaki</i>		Mantenimendu gimnasia <i>Iñaki</i>
09:30	Mantenimendu aerobikoa <i>Iñaki</i>	Defentsa pertsonala	Mantenimendu aerobikoa <i>Iñaki</i>	Defentsa pertsonala	Mantenimendu aerobikoa <i>Iñaki</i>
15:00	Fitnessa		Fitnessa		Fitnessa
17:30	Umeen aerobika <i>Oihana</i>		Umeen aerobika <i>Oihana</i>		Umeen aerobika <i>Oihana</i>
18:30	Stepa <i>Oihana</i>	Circuit traininga <i>Oihana</i>	Cardio aerobika <i>Oihana</i>	Circuit training <i>Oihana</i>	Stepa <i>Oihana</i>
	Umeen karatea <i>Carlos/Aitor</i>		Umeen karatea <i>Carlos/Aitor</i>		Umeen karatea <i>Carlos/Aitor</i>
19:30	Stepa <i>Idoia</i>	Circuit training <i>Oihana</i>	Cardio aerobika <i>Idoia</i>	Circuit training <i>Idoia</i>	Stepa <i>Idoia</i>
	Jujitsu	Mantenimendu gimnasia <i>Idoia</i>	Jujitsu	Mantenimendu gimnasia <i>Idoia</i>	Jujitsu
20:30	Stepa <i>Idoia</i>	Circuit training <i>Idoia</i>	Kardio aerobika <i>Idoia</i>	Circuit training <i>Idoia</i>	Stepa <i>Idoia</i>
	Helduen karatea <i>Carlos/Aitor</i>		Helduen karatea <i>Carlos/Aitor</i>		Helduen karatea <i>Carlos/Aitor</i>



Aranerrek 9. Bergara. Telefonoa: 943 76 72 91



- Zilarra
- Piercinga, minik gabe, akupuntura elektroniko bidez
- Tatuaje artistikoa
- Botatzeko materiala
- Pertsonal tituluduna



ARROPA ERE
BADUGU.
%100 HIP HOP



Biteri etorbidea 15.

Arrasate. 943 77 02 69.

Uztailaren 2an jokatu da "Bergara Hiria"ko finala

Muguruzak herrien artekoa jokatu behar du eta

Bergara Hiria Pilota txapelketako finalak uztailaren 2an jokatu dira eta ez gaur, aurreikusita zegoen bezala.

Kontua da herri arteko txapelketan Bergarak final erdietarako txartela eskuratu zuela joan zen astean eta Azkoitiaren kontra jokatu behar dituztela joaneko partiduak. Azkoitiarrek gaurko iragarri dituzte partiduak eta ez dute neurketak atzeratu nahi izan, Bergarakoek atzeratzeko eskaria egin arren. Ander Muguruzak Bergara Hiria txapelketako finala jokatu duenez eta herri artekoan ere badabilenez, Bergara Hiriko finalak atzeratu behar izan dituzte.

AZKOITIAREN KONTRA

Herrien artekoan 3 eta 0 nagusitu zitzaizen bergararrak lasartearekin joan zen eguakitzean Bergaran jokatuak itzulerako partiduetan. Joanekoan 2-1 galdu zuten bergarrek eta 11 tantuko alde atera zieten lasartearekin. Halere, itzulerakoan bergarrek hiru partiduetan hartu zituzten mendean lasartearekin. Kadete mailan



Ander Muguruzak eta Iker Muruamendiarezek bi aste itxoin beharko dute Bergara Hiria txapelketako finala jokatzeko.

Herranek eta Aranburuk 18 eta 6 irabazi zuten; jubentzetan, Redondok eta Muguruzak 22 eta 8 eta afizionatuetan, azkenik, Samaniegok eta Gutierrezek 22 eta 16.

Aipatu dugun bezala, gaur jokatu dituzte Azkoitiaren final erdietako joaneko partiduak. Txapela irabazteko faborito nagusiak dira azkoitiarrak eta zaila izango zaie irabaztea bergarrei, baina ahaleginak egingo dituzte eta ilusio handiarekin doaz Azkoitiara.

Bestalde, Ander Muguruzak eta Iker Muruamendiarezek Bergara Hiria txapelketako finalean izango dira. Lehenengoak Mendiluzerekin batera jokatu du, Erauskin eta Retegiren kontra. Afizionatu mailan, berriz, Inurategirekin batera jokatu du Muruamendiarezek eta Arbizu eta Errastiren kontra arituko dira. Partiduak, esan bezala, uztailaren 2an jokatu dira 19:30etatik aurrera Udaltaldean.

LEHENDAKARI KOPA

Esan dezagun, azkenik, Lehendakari kopako finala jokatu dutela domekan Zarautzeko Aritzatalde pilotalekuan Etxanizek eta Zezeagak Unanue eta Belokiren aurka. Joan zen asteburuaran Eibarren Olaizola II.a eta Berna 22 eta 13 menderatu ondoren, sasotsu daudela erakutsi dute bergarrek eta, domekan, Asegareko bikotearen kontra neurtuko dituzte indarrak. **B**

Dixula

**BOKATAK
DAUZKAGU**

Barrenkalea 32
Tf. 943 76 44 95

**A
R
R
A
N
O**



Taberna

Kruz Gallastegi BERGARA

KONDE



Burdinate 1
☎ 943 76 02 57

**P
A
N
A
D
E
R
O
K
U
A**

Sugoi

**ERLOJUAK, ARTIKULO
ELEKTRONIKOAK,
KALKULADORAK...**

Irizar pasealekua 2 behea
☎ 943 76 59 54 BERGARA



Bergarako eta Oñatiko jokariak aldageletan, partidu ostean garaipena ospatzen.

Begarako Lagunak kopako txapeldun

Areto futboleko Lagunak jubencil mailako taldeak, 8-2 irabazi zion Aloña Mendiri eguakitzean jokatu zen Gipuzkoako Kopako finalean. Aitor Zabaleta entrenatzaileak adierazi digunez,

“oso ondo jokatu genuen. Oñatikoak urduri zeuden. Bi taldeen artean giro ona egon zen partidu osoan zehar. Federazioko epailerik ez zen agertu eta Aloña eta Bergara taldekoek epaile la-

na egin behar izan genuen”. Golegilerik onena Fran Martinez izan zen, 3 golekin. Aitor Vicentek 2 gol sartu zituen eta Oscar Jimenez, Unai Azkondo eta Jon Ortiz de Zaratek, bana.



Denboraldi berriari begira, Francok eta Errastik taldea laga egingo dute Eibarrera eta Ondarroako Aurrerara joateko. Osorok ere ondarrutarren eskaintza jasotu du, baina oraindik ez du erabaki zer egin. Uztailaren 19an hasiko dira entrenatzen eta iaz ibilitakoei, jubeniletatik igoko diren lau jokari eta orain dela urte batzuk Bergaran aritutako beste batzuk gehituko zaizkie. Dena dela, denboraldia hasi baino lehen, entrenatzaileak erabakiko du taldea osatuko duten jokalarien zerrenda. Lauri Askargorta izango da bigarren entrenatzailea.

Bestalde, BKEko mutilen eta nesken futbol talde nagusien arteko partidua jokatu da zapatuan 4:30etan Agorrosinen, denboraldiari amaiera emateko.

JOSEBA LARRAÑAGA/ Pilotaria

“Txaparen gaina bilatzea dut gustoko”

17 urterekin jubeniletan zebilela pilota utzi zuen arren, hango eta hemengo betaranoen txapelketak jokatzeko dihardu. Uberan jokatu zen txapelketan finalera iritsi zen Gallastegi bikote zuela, baina ez zuen irabazterik izan. Joan zen domekan, berriz, Oñatiko pilota elkarteak antolatutako txapelketa irabazi zuen 22-15, Muguruzarekin.

G. Zer moduz joan zen finala?

E. Ondo hasi ginen, nahiz eta azken partean estuasunen bat izan. Bikote ona izan nuen. Muguruzarekin jokatzeko abantaila handia da. Bergarako bi bikote izan ginen finalean, gu eta Osa

eta Aldaik osatutako bikotea.

G. Gazteenetarikoa izango zinen.

E. Bi maila zeuden eta gu lehengoan aritu gara. Bigarren mailan bazegoen nere adinekorik, baina lehengoan gazteena nintze la uste dut. 4 bikotek jokatu genuen lehen mailako txapelketa. Hilabete inguru iraun zuen. Finalera heltzea ez zitzaigun gogorra iruditu.

G. Zer dela eta utzi zenuen federatu mailako pilota?

E. Eskuan arazo handiak izaten nituelako. Medikuetan ibili arren ezin izan zuten zauria guztiz sendatu eta laga egin behar izan nuen. Beteranoren txapelketetan, pilota bigunagoak eta handiagok erabiltzen dira eta horrela primeran moldatzen naiz.


G. Non jokatzeko duzu?

E. Aurrean. Txaparen gaina bilatzea dut gustoko. Horrek arrisku handia dakar, baina arrisku hori da benetan atsegin dudana.



I P I N T Z A K O

futbol txapelketa



partiduak

NESKAK

Eguakitza 11

Kadeteak

19:00: Baleike-EKA

19:00: Aupa-Aldrebesak

20:00: Las 43-Azkenak

Nagusiak

20:00: Zutaz Pentsatzen-Onenak

21:00: Pentol's Team-Potzu

21:00: Elgetako Jaixon Bertan-Biko

MUTILAK

Astelehena 14

19:15: Angiozar-Black & Decker

20:30: Etengabe-Game Over

Martitzena 15

19:15: Manitou-Matxakategi

20:30: A Ze Flaxa La Guipuzcoana-La Juve

Eguaztena 16

19:15: Gore-Bildurbarek Opel Lam

20:30: Euskal Beccia-Arloteak

Eguena 17

19:15: VTA-Fatxurtu

20:30: Osintxu-Mongatxurak

emaitzak


MUTILAK

Mongatxurak-Manitou	3-1
VTA-Txokokuak	4-2
Ezinleike-Bildurbarek Opel Lam	1-3
A Ze Flaxa La Guipuzcoana-Mokolotov	1-1
VTA-Toyhu	2-4
Osintxu-Amilotx	2-1
La Juve-Altos Pornos	3-4
Txokokuak-Arloteak	7-0

NESKAK

Aldrebesak-Las 43	4-4
Azkenak-EKA	1-5
Baleike-Aupa	3-0
Biko-Zutaz Pentsatzen	1-4
Elgetako Jaixon Bertan-Lai Lai Lai	0-6
Potzu-Onenak	1-1

jokoz kanpo

Jone Azkarate
ONENAK**G.** Nola hasi duzue txapelketa?**E.** Zorte handia izan dugu, partidu bat irabazi eta bestea berdindu egin dugu.**G.** Aurten inoiz baino neska talde gehiago dago; faboritorik?**E.** Igoera nabarmena kadete mailan igarri da. Gazte asko animatu da txapelketan parte hartzera. Bestalde, talde faboritoei Zutaz Pentsatzen dela esango nuke. Popek entrenatzen duen taldea ere oso ona da.

Futbitoan aritu dira eta dagoeneko prestatuta daude. Beraiei irabaztea gustatuko litzaidake baina zaila da.

G. Golik sartu duzu?**E.** Bakarra, Elgetako taldearen kontra.**G.** Zertan moldatzen zara ondoen?**E.** Aurrealdean jokatzeko gustatzen zait.**G.** Zer azpimarratuko zenuke zure taldetik?**E.** Daukagun jokatzeko gogoia eta gustora gabiltzala. Hala ere, txispa apur bat falta zaigu. Bergarako futbol taldean nabil eta, federatuta nagoenez, ezin izan dut joan zen urteko taldean jokatu. Antolatzaileek Onenak taldean ipini ninduten.**G.** Nola amaitzea espero duzu?**E.** Uste dut erdialdean amaituko dugula.**G.** Nesken txapelketako jokalaria bat?**E.** Silvia Valor.

gora eta behera



Arloteak

Txapelketa aurrera doa eta faborito nagusiak aurreko postuetan agertzen hasi dira. Txapela irabazteko aukera handiak dituen taldeetako bat Arloteak da. Aste honetan zazpi gol egin zizkion Txokokuak taldeari, joko ona erakutsiz.



Mokolotov eta A Ze Flaxa

Antzuolako Mokolotov eta A Ze Flaxa La Guipuzcoana taldeen arteko partidua gogorra izan zen eta joko zikina ikusi ahal izan zen: jokalarien arteko hika mikak, epaileari eta marrazainei protestak... Horrela ezin da.

sailkapenak

A multzoa

	P	J	GA	GK
1. Arloteak	9	3	12	0
2. Euskal Beccia	6	2	9	2
3. Fatxurtu	3	2	5	2
4. VTA	1	3	7	11
5. Toyhu	1	3	5	10
6. Txokokuak	0	3	3	16

B multzoa

	P	J	GA	GK
1. Mongatxurak	7	3	10	1
2. Amilotx	6	3	4	2
3. Manitou	3	3	8	6
4. Fo Fo Fo	3	2	6	7
5. Osintxu	1	3	5	14
6. Matxakategi	0	2	0	3

C multzoa

	P	J	GA	GK
1. A Ze Flaxa La Guipuzcoana	7	3	4	2
2. Altos Pornos	6	3	9	6
3. Black & Decker	6	2	6	4
4. Angiozar	3	2	12	1
5. Mokolotov	1	3	4	8
6. La Juve	0	3	5	19

D multzoa

	P	J	GA	GK
1. Gore	6	2	7	1
2. Bildurbarek Opel Lam	6	2	6	2
3. Game Over	1	2	0	3
4. Etengabe	0	2	2	7
5. Ezinleike	0	2	1	3

Neskek, kadeteak

	P	J	GA	GK
1. EKA	6	2	12	1
2. Baleike	6	2	5	0
3. Las 43	2	2	6	6
4. Aldrebesak	1	2	4	11
5. Aupa	1	2	2	5
6. Azkenak	0	2	1	7

Neskek, nagusiak

	P	J	GA	GK
1. Zutaz Pentsatzen	6	2	12	1
2. Lai Lai Lai	6	2	10	2
3. Onenak	4	2	5	3
4. Potzu Ta Zapaburuak	1	1	1	1
5. Biko	0	2	3	8
6. Elgetako Jaixon Bertan	0	2	2	10
7. Pentol's Team	0	1	0	8

golegileak

MUTILAK

1. Igor LarrañagaGore4	gol
2. Xabier ZangituMongatxurak4	gol
2. Oskar MaiztegiAltos Pornos4	gol

NESKAK, NAGUSIAK

1. Naiara BeistegiLai Lai Lai4	gol
2. Eva AlzasBiko3	gol

NESKAK, KADETEAK

1. Amaia OsaEKA4	gol
--------------	----------	--------	-----

1. ETXEBIZITZAK

SALDU

Pisua salgai Huelvan, garajearekin. 943 76 40 25.

Artekalea. 943 76 02 24.

Masterreka. Amueblatua. 941 24 39 02.

Lizarratik 5 km.ra pisua salgai. 943 76 23 12.

Martoko. 943 76 37 21.

Alicanten, plaian. 10,5 milioi. 965 14 18 90.

Soraluze. Berriztua. Amueblatua. 943 75 23 98.

Bolu. 943 76 24 85.

Etxe berriztua Urteagan, 130 m². 943 76 08 79 (19:00etatik aurrera).

Estudioa Salouko Pine-dan. 943 79 11 29 (lan ordutegia).

Antzuolan, beheko au-zoan. 943 76 60 20.

Etxe berriztua Zubiaurren. 943 76 11 13.

Pisua salgai Zubiaurren. 943 76 49 30.

Bidekurutzetan 250 m²ko ganbara salgai. 943 76 21 80.

Iragarki sailkatuak

Iragarkia DOAN jartzeko, zatoz Berrigarara edo deitu telefonoz, 943 76 03 97, martitzen eguerdia baino lehen. Berrigarak ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Zure iragarkia ia 16.000 lagunek irakurri dezakete!

1. ETXEBIZITZAK

Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Etxe konpartituak
Bestelakoak

2. GARAJEAK

Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

3. LOKALAK

Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

4. LANA

Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

5. IRAKASKUNTZA

Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

6. IBILGAILUAK

Saldu
Erosi
Bestelakoak

7. ANIMALIAK

Saldu
Erosi
Bestelakoak

8. DENETARIK

Saldu
Erosi
Eman
Hartu
Trukatu
Galdu
Aurkitu
Bestelakoak

9. HARREMANAK

Agurrak
Kontaktuak
Deiak
Bestelakoak

3. LOKALAK

ERRENTAN EMATEKO

Lokala San Pedron. 943 76 10 39.

Zubietan. 136 m². 943 76 08 18.

ERRENTAN HARTZEKO

Nekazal lursaila (2.000 m²koa) alokairuan hartuko nuke. 943 76 26 79.

4. LANA

ESKAITZAK

Etxeko lanak edo haurrak zaindu. Esperientzia. 943 76 72 32 (Ana).

Mutila eskaintzen da lanerako. 943 76 04 40.

Neskak, goizez, haurrak zaindu edo etxeko lanak. 943 76 46 07.

Mutila txakurrak pasiatzera ateratzeko. 943 76 29 95.

Neska edozein lanerako prest. 943 76 35 38.

Emakumeak etxeak garbitu edo zaharrak zaindu. 943 76 09 33.

Arratsaldez lan egingo

Baserría salgai Angiozarren. 943 76 01 70.

EROSI

Toki-Eder inguruan pisua erosiko genuke. 943 76 04 88 (gauzez).

ERRENTAN EMATEKO

Pisua alokairuan Simon Arrietan. 943 76 31 79.

Zarautz (abuztuan ez). 943 76 42 05.

Apartamentua Laredon.

943 76 44 34.

Laredon apartamentua udan. 943 79 52 80.

ETXE KONPARTITUAK

Beste norbaitekin pisua konpartituko nuke irailetik aurrera. 943 76 38 76 / 03 53 (Shane).

2. GARAJEAK

SALDU

Koldo Eleizalde 36an. 943 76 36 34.

Ibargarai. 943 15 15 81.

Aranerreka. 943 76 28 07.

Koldo Eleizalde 36an. 943 76 36 34.

Martzial Agirren garaje bikoitza. 943 76 33 88.

Garajea saldu edo alokatzen da. 943 76 40 03.

Ibargarai. 943 76 72 17.

Ibargarai. 943 76 23 53.

Burdiñate. 619 80 26 06.

K. Gallastegi. 943 76 27 61.

B. Laskurain. 943 76 18 85.

Zubiaurre. 943 76 08 89.

Zubiaurre. 943 76 23 53.

Ibargarai. 943 76 44 25.

Garajea salgai San Lorentzon. 943 76 48 09.

ERRENTAN HARTZEKO

Garajea alokairuan hartuko nuke. 943 76 08 53.

Garajea alokatuko nuke. 943 76 05 17.

FRANTSES IRAKASKUNTZA

Ikastaro trinkoak uztailaren 5etik 23ra

Izena emateko epea: uztailaren 3ra arte.

Informazio gehiago:

Mizpildi 3, 1-ezkerra. BERGARA.

Tf. 943 76 30 55

Ordutegia: 10.00-12.00 eta 17.00-19.00



GIDA-BAIMENA DUEN MUTILA

behar da uztailan eta abuztuan goizez lan egiteko
943 76 02 57

Esperientziadun SUKALDARI LAGUNTZAILEA

behar da

943 76 72 00

ETXEBERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16 BERGARA

Tf. 943 76 23 94 / 943 76 12 65

nuke. 943 76 52 39.

Neskak goizez haurrak zaindu edo dendan lan. 943 76 53 71 (Maite).

Emakumeak etxeko lanak edo atariak garbitu. 619 52 98 04.

Emakume esperientziadunak dendan lan egin-go luke. 943 76 07 69.

Neskak umeak zaindu eta etxeak garbitu. Abuztuko lehen hamabostaldia. 943 76 04 57.

Lanak ordenadorez pasatzen ditut. 943 76 10 94 (arratsalde).

ESKAERAK

Umeak zaindu eta etxeko lanetarako neska behar da. 943 76 05 55 (gauzez).

Emakumea behar da abuztuko lehen hamabostaldian elkarre bat garbitzeko. 639 47 25 84.

Etxeko lanak egin eta haurrak zaintzeko neska euskalduna behar da. 943 76 31 11.

Etxeko lanetarako eta ume bat zaintzeko neska euskalduna behar da Antzuolan. 943 76 64 24.

5. IRAKASKUNTZA

ESKAINTZAK

Ingeles filologian lizentziatuak klaseak ematen ditu. 943 76 30 28.

OHO eta BBB klaseak. 943 76 33 26.

OHO eta DBH klaseak abuztuko 2. hamabostaldian. 943 76 25 90.

Ingeles klaseak. Esperientzia. 943 76 51 23.

Klase partikularrak. 943 76 17 57 (Rebeka).

Ingeles klaseak. 943 76 25 79 (Nuria).

OHO eta DBH klaseak. 943 76 26 27 (Ainhoa).

OHO. 943 76 37 94.

Hezkuntza berezian diplomatuak klaseak uztailean eta irailean. 943 76 31 79.

6. IBILGAILUAK

SALDU

Citroen C25 furgoneta, bolumen handikoa. 943 76 28 93 (gauzez).

Fiesta 1300 (SS-W) prezio ona. 943 76 63 29.

Honda NSR 80 motorra salgai. 943 76 31 52.

Golf GTI. 943 76 05 96.

R-11 GTL. 125.000 pta. Egoera ona. 943 76 37 82.

Yamaha 600 Diversion motorra. 943 76 08 83.

Karabana plegablea. 943 76 29 29.

Ford Sierra 2.3 diesela (SS-U). 943 76 40 54.

Peugeot 106 (SS-AN). 943 76 51 54 (gauzez).

Renault 19 TXE 1.7. Aire egokitua. 250.000 pezeta. 943 76 19 56.

Volkswagen Combi furgoneta. 943 71 49 15.

7. ANIMALIAK

SALGAI

Ardi txakurkumeak. 943 76 36 14.

BESTELAKOAK

Doberman eta boxer arteko txakurkumeak opari. 649 07 97 97.

Leku itxian ohitutako txakurra opari. 943 58 50 64.

8. DENETARIK

SALDU

Mendiko bizikleta. Deitu 943 76 10 80 telefonora.

Eskopeta paralela salgai. 943 76 37 25.

Kristalezko salmahaiak eta baskula. 943 76 21 81.

Minolta argazki kamara, flaxa eta Takumar objektiboa. 943 79 06 15.

Kanpinerako "Igloo" hozkailua. 943 76 41 21.

Bi ohe, idazmahai, altxariak eta apalak. Harritz egurra. 943 76 43 37.

Kutxa erregistratzailea. 607 94 13 38 (Asier).

EROSI

Kitarra elektrikoa erosi nahi nuke. 943 76 27 85.

Bigarren eskuko botoidun akordeoia. 943 76 47 48.

BESTELAKOAK

Kotxedun pertsona behar da Bergara-Bilbo egiteko arratsaldeetan. 943 76 91 10.



Langai

Euskal Lan Zerbitzua

MEKANIKARIA

Ibai ezkeraldea. 19954/5

MARKETING ZUZENDARIA

Bilbo. 20151/4

ALIKATATZAILEAK, 2

Arabar Lautada. 20255/2

ERROTULATZAILEA

Ibai ezkeraldea. 20300/4

LH II METALA

Deba Behea. 20368/2

LH II TEKNIKARIA (klimatizazioa)

Deba Behea. 20523/2

LH AUTOMOZIOA

Durangaldea. 20539/3

LH I MEKANIKARIA

Donostia. 20565/2

TAILER MEKANIKO ARDURADUNA

Donostia. 20566/2

MANTENIMENDU ARDURADUNA

Tolosaldea. 20590/5

ELEKTRIZISTA

Arabar Lautada. 20658/5

10 ANALISTA PROGRAMATZAILE

Bartzelona. 20789/1

INFORMATIKA LIZENTZIATUAK, 4

Bartzelona. 20791/1

INFORMATIKA LIZENTZIATUAK, 6

Bartzelona. 20795/1

10 INFORMATIKA PROGRAMATZAILE

Bartzelona. 20800/1

INFORMATIKA IRAKASLEA

Bilbo. 20902/3

FISIKA IRAKASLEA

Bilbo. 20904/4

SUKALDARIA

Urola Kostaldea. 21142/1

Lan eskaintza hauetakoren bat interesatzen bazaizu, erreferentzia hartu eta eskatu informazioa.

LANGAI Udaletxean: astelehen, eguazten eta eguakitzetan 9:00etatik 13:00era. Telefonoa: 943 77 91 65, Maria Jesus Unamuno.

GIDA-BAIMENA DUEN NESKA

behar da igande eta jaiegunetarako

943 76 02 57

Tabernarako ZERBITZARIA

behar da

943 76 53 64



LA PUERTA AL INGLES, S.L.

1999KO UZTAILEKO IKASTAROA MATRIKULA ZABALIK

INGELESA

- Talde TXIKIAK
- MAILA guztiak
- Egunero, BI ORDUko klaseak, guztira 44 ordu hilean



- GOIZEZ nahiz ARRATSALDEZ
- Azterketetarako PRESTAKETA
- 6 URTEtik gorako haurrentzako eta HELDUentzako hastapen klaseak
- Klaseen hasiera, UZTAILAREN 1ean

INFORMAZIOA: Burdiñate 5, Bergara Tf. 943 76 30 01

Eremu megalitiarrari buruzko bideoa kalean

Kapirixok argitaratu du eta, bestalde, elurzuloei buruzko panela aurkeztu du

Elosutik Karakatera arteko mendilerroan dagoen eremu megalitiarrari buruz Kapirixoko elkarteak egindako bideoa aurkeztu zen martitzenean UNEDen. Era berean, Gorlara bidean, neberetako kurba bezala ezagutzen den tokian dagoen elurzuloan jarriko duten panela ere aurkeztu zuten Xabier Larrañaga eta Anaje Narbaiza Kapirixoko kideek.

“Elosu-Plazentzia Eremu Megalitiarra” da bideoaren izenburua, VHS formatoan argitaratu da eta ia 25 minutuko iraupena du. Amaia Labaienek egin du eta gidoian Xabier Larrañaga eta Anaje Narbaizak ere hartu dute parte. Testua Juan Martín Elexpurrena da eta off ahotsa Xabier Labaienek jarri du. Hasiera batean 150 bideo argitaratu dituzte eta 1.500 pezetan salduko dira; Kapirixoko bazkideentzat 1.200 pezetan salduko da.

Kapirixoko kideek aurkezpenean adierazi zuten, hasierako asmoa ez zen bideoa egitea, baina Elosu-Plazentzia eremu megalitiarra garbitzeari ekin ziotenean, argazkiak ateratzen eta bideoarekin irudiak hartzen hasi ziren, eta bildutako materialarekin bideoa egitea erabaki zuten.

Inguru horren historiari eta mitologiari buruzko azalpenak ematen dira bideoan: erritoak, ohiturak, baserriak, geologia... Garai batean inguru horietan oso ezagunak ziren Txantrua lapur gaizkilearen gora beherak, Irukurutzetako erromeriari buruzko irudiak, e.a. ere jasotzen dira. Bestalde, inguru megalitiarra garbitzen, zaborrak jasotzen eta sasiak kentzen ere agertzen dira hainbat herritar.

18 ERAIKIN MEGALITIAR

Elosu-Plazentzia eremu megalitiarrean 18 eraikin megalitiar daude, orain dela

5.000 urte inguru eraikitakoak eta ilobi bezala erabiltzen zirenak. Elosu inguruan 1920. urtean aurkitu zuen lehen trikuharria Jose Migel Barandiaranek. Ondoren, Eguren, Aranzadik eta Barandiaranek berak industu zuten. Kapirixokoak, berriz, 1994. urtean ekin zioten ingurua garbitu eta dagokion moduan seinalizatzeari.

Lan hauen guztien osagarri gisa kaleratu dute bideoa, baina honekin batera, ariketak egiteko koaderno bat ere argitaratuko dute aurki. Asmoa, bai bideoa eta baita ariketak ere ikastetxetan banatzea da, ikasleek landu dezaten. Kapirixoko kideek bideoaren aurkezpenean esan zuten, “Mendilerro hau Gipuzkoan ezagutzera eman nahi dugu. Inguru honetan ondo ezagutzen dugu; ez, ordea, hemendik kanpo. Bestalde, eraiki nahi dituzten errota eolikoek ere eragingo diete mendilerroari eta hori ere jakinarazi nahi diogu jendeari”.



Aparteko eskaintza!



Puntu gorridun CDak:

- bat, 1.075 pezeta
- bi, 955 pta bakoitza
- hiru, 896 pta bakoitza



Hauetan eta beste askotan!


ETXEPARE-BILINTX



LIBURUGENDA

Liburuak eta diskoak

Ibargarai 12 ☎ 943 76 40 50 BERGARA





ELURZULOEI BURUZKO PANELA

Bideoa aurkezteaz gain, beste egitasmo baten berri ere eman zuten Kapirixokoek martitzenean. Hain zuzen ere, Gorrara bidean, Neberetako kurba bezala ezagutzen den tokian dagoen elurzuloan jarriko duten panela aurkeztu zuten. Elurzuloa garbitzen aritu dira azkenal-

dian Kapirixokoak eta lanak amaitu eta gero, 90x60 zentimetroko panel didaktikoa jarriko dute bertan.

Elurzuloak zertarako erabiltzen ziren eta nolakoak ziren azaltzen da panelean, marrazki eta testuen bitartez.

Mende honen hasierara arte, argindarra eta izotz fabrikak agertu ziren arte, izotza egiteko erabiltzen ziren elurzuloak. Bergaran, Neberetako kurbakoaz gain, Agarreburun ere badago beste bat. Lehenengoa,

manposteriaz egindakoa da eta bost bat metroko diametroa dauka. Bestea, naturala da, forma konikoduna eta Neberetako bano zabalagoa, 12 bat metroko diametroa. Paneleko marrazkiak Amaia Arriaranek egin ditu eta panel osoa Amaiak berak diseinatu du.



Kapirixokoak Elosuko eremu megalitarrak garbitzen. Goian, Neberetako kurban jarriko den panela.

erreseinak



Jon Gaztelumendi
Haizea mindu gabe
Eleberria

“Goizaldean lur sakonetik itsas aldera doaz hegaztiak, ilaran, bata bestearen atzetik haizea mindu gabe. Modulu arteko patio batean preso dago gora begira; zein motatako txoriak diren galdetu du ozen, erantzunik jasotzeko itxaropenik gabe”. Horrela hasten da Jon Gaztelumendi preso oreretarrak 1997 eta 1999 artean idatzitako narrazio liburu hau. Kartzelako gora beherei buruzko istorioak.

- Susa. 153 orr. 1.800 PTA



Bide Ertzean
Zure minari
Pop

Bide Ertzean taldearen estraineiko iraupen luzeko diskoa, “Zure minari” izenekoa, iaz argitaratu zuten Maxi CDa osatzera dator. Tankera askotako abestiak aurki daitezke diskoan: gozoak, garratzak, rockeroak zein lasaiak, baina guztiei hartzen zaie pop usaina. Abesti guztien hitzen egilea Jose Luis Otamendi poeta azkoitiarra da; batzuk diskorako propio idatzitakoak, tartean, “Badator eguna” Elkartasunaren egunerako espreski egindakoa. Azpimarratzekoak dira Fran Iturbe eta Kaki Arkarazok kitarrarekin egindako lana eta baita Ruper Ordorika, Igor Elortza eta Berri Txarrak taldeko Gorka Urbizuren luxuzko kolaborazioak ere.

- Gaztelupeko Hotsak. 2.100 PTA

URRATS
TABERNA

KOKTEL BEREZIAK
GAUETAN

Ibargarai 4
943 76 52 92

PILI GISASOLA

Santiveri

Osasun eta Dietetikan
espezializatutako zentrua

Zurradero 2 behea.
☎ 943 76 58 83

Gallastegi

Jostundegia

Mahoizko lanerako jantziak

San Pedro ☎ 943 76 10 85

SUBIJAI

Gazteentzako moda

Irizar 1 ☎ 943 76 42 41

denborapasa / LUMA

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
2									
3									
4									
5									
6									
7									
8									
9									
10									

Ezker eskuma

1. Aletegiak, bihiak gordetzeko lekuak. 2. Emakume. 3. Ezin aipa daitekeena. Haziak barreiatu. 4. Txori-mota. Aurka adierazteko aurrizkia. 5. Tunisiako hiria. Nor, pluralean. 6. Bat. Musika nota. Italiako hiria. 7. Baztango herria. Iodoa. Eguneroko jaki. 8. H:O. Oinak. 9. Larrua. Azkenekoa. Bokala. 10. Intsektu-mota. Begirunea izatea merezi duena.

Goitik behera

1. Betebeharra. 2. Metalen erakarlea. Asiako estatua. 3. Harriak jaurtitzeko tresna. Jainko egiptiarra. 4. Ezaugarria, marka. Gaixo. 5. Istu. Urrea. Diruzko zigor. 6. Ez ar. Artsenikoa. Tantalioa. 7. Lore-mota. Bostheun. 8. Deitura. Egin ezazu! 9. Frantziako hego-mendebaldeko lurralde historikoa. Iodoa. 10. Puntuen leku geometrikoa. Norekin atzizkia.

Soluzioa

10. Konika. ken.
9. Aktantia. l.
7. Gerantioa. D. 8. Izen. Egizti.
5. Tu. Au. Igun. 6. Eme. As. Ia.
3. Habalia. Ra. 4. Ikurra. Eri.
1. Betekezuna. 2. Imana. Irak.
Goitik behera
9. Narna. Z. E. 10. Akain. Dain.
7. Zia. l. Ogi. 8. Ur. Estatak.
5. Kaituan. Ak. 6. l. La. Siena.
3. Tabu. Eren. 4. Enara. Anli.
1. Bihitegiak. 2. Emakumezko.
Ezker eskuma

bonofotoa



Miguel Angel Elkorobereziabar

Zer lantzen zuten Oregiren lantegian: oihala, egurra ala burdina?

Jarri Bonofotoko eta Galde Debaldeko erantzunak behean eta asmatzen dituzuenon artean afari ederra zozketatuko du BERRIGARAK. Aste honetan irabazten duenak eta berak aukeratutako lagunak **Azpeitxi** jatetxean izango dute afaria.



Aurreko aleko saria, **Asier Iturberentzat** izan da: Leku-Berri merenderoan bi lagunendako afaria. Zorionak Asierri! Galderen erantzun zuzenak: Bonofotoa: **Gure Ametsa** Galde Debalde: **1-B, 2-C, 3-B**

BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1: _____ 2: _____ 3: _____

Izen-deiturak: _____ Telefonoa: _____

Ekarri edo bidali txartela **EGUAZTEN EGUERDIRAKO** Berrigarara! **AFARI EDERRA IRABAZ DEZAKEZU!**

AZPEITXI

Jatexea

Aranerreka 13
Tf. 943 76 55 00



Bergaran bizi dan zornotzar honek garbitasun eta begirale lanak egingo ditu udan igerilekuetan. Kazetaritzan lizentziatua da eta elektrizitate ikasketak egingo ditu Migel Altunan. Kirolzale amorratua, triatloitarako entrenatzen dau.

Udan, hondartza ala igerilekuak?

Hondartza nahixago.

Bizkaiko ala Gipuzkoako kostaldia?

Bizkaikua, duda barik.

Hondartza bat?

Laga eta Playa San Pedro, Almerian.

Eguzkitxan ala keizpetan?

Eguzkitxan hobeto.

Baiñujantzi motza ala luzia?

Baiñujantzirik barik onduen...

Zenbat urtekin ikasi ziñuan igeri egitten?

7 urtekin-edo.

Baiñatu zara igerilekuan aurren?

Ez.

Lanik gorrotagarrixena?

Zigarrokiñak jasotzia.

Eta atsegiñena?

Jendiari laguntzia ahal dogun neurrixan.

Ze puntuaziño merezi dau Bergarako igerilekuak?

1etik 10era, 7,5.

Triatloian, uretan, korrika ala bizikletan onduen?

Hiruretan antzera.

Egunian zenbat ordu entrenatzen dozu?

Pare bat gutxienez.

Dieta zaintzen dozu?

Garbi jaten ahalegintzen naiz.

Janaririk gustokuen?

Guijuelo urdaiazpikoa.

Joseba Zuzaeta

Eta jan ezin dozun beste bat?

Mafaldaren zopa.

Sukaldari ona zara?

Bai.

Zure espezialidadia?

Legatza sagardo erara.

Irratixa ala telebista?

Irratixa.

Programa bat?

Roge Blascoren "Levando anclas", Radio

Euskadin.

"Ertzainak" telesaila ikusten dozu?

Ez.

Egunkarixan irakurtzen dozun lehenengo gauzia?

Txirrindularitzako albistiak.

Pantani errudun?

Bai.

Irakurritxako azken liburua?

Malcolm Xen autobiografia.

Filme bat?

"El gran Lebowski".

Aktoresa bat?


Maria Grazia Cuccinota, "El cartero" pelikulan agertzen zana.

Athletic UEFAn sartuko da?

Merezimendu osoz.

Luis Fernandezek aldekoa zara?

Kraussek konparau ezkerero, bai. **B**



BASTER

BERGARA

l i k i d a z i o a

l e k u a l d a k e t a g a t i k

Telesforo Aranzadi 2. 943 76 10 08



Mariaren Lagundiko ikasleak, 1927

Aurten 200 urte betetzen dira Mariaren Lagundia ikastetxea sortu zenetik. Tuterako Mariaren Lagundian zegoen Magdalena Goizueta-koa moja donostiarrak Bergaran neskatilen hezkuntza publikorako ikastetxe-komentua egin ahal izateko bere ondasun guztiak eman zituen. 1799ko apirilaren 6an nesken hezkuntzarako lehen erlijio institutua sortu zen Bergaran. 200 urte igaro dira eta denbora honetan milaka ikasle pasatu dira Mariaren Lagundiko geletatik. Erretratuan 1927ko ikasle talde bat duzue. Orduan 9 bat urte izango zituzten eta hor dira zintzo-zintzo argazkia atera zain. Guztien izenak jakitea ezinezkoa izan bada ere, honako hauek dira bertan agertzen direnak:

Goian: Juanita Zabala, Juanita Gallastegi, Mertxe Escalante, Maria Teresa Orbe, Juli Mujika, Maritxu Loidi, Felisa Azkarate, Juli Idarreta eta Carmen Artetxe.

Erdian: Begoña Mujika, Asuntxi Mendizabal, Florita Sañudo, Beatriz Sarasketa, Ana Mari Etxaniz, ezezaguna, Jesusita Larraza, ezezaguna eta Teresa Amasorrain.

Aurrean jarrita: Kontxita Saizar, Itziar Mujika, Juli Narbaiza, Maria Luisa Mendizabal, ezezaguna, Margarita Idarreta, Pili Sañudo, Maria Luisa Unzilla eta Juli Lizarralde.

Argazkia: Pili Larraza

iRUDI
Erlojudenda
Bitxitegia
Ibargarai 2
943 6 51 65



zumelaga

JATETXEA

ZERBITZU, KALITATE, KANTITATE ETA
PREZIOAN PAREKORIK EZ!

San Antonio 5 BERGARA ☎ 943 76 20 21



MEMESA

INDUSTRI HORNIDURAK

Tf. 943 71 24 25

Prezioak eta abantailak

Zatoz Mapfrera zure autoaren prezioak eta liderrarekin aseguratzearen abantailak ezagutzera


	DIEZ 10 poliza	TREBOL poliza	LIDER Fr. 50.000 poliza	TODO RIESGO 100 poliza
Opel Astra 1.6 8 bal. Club 5 ate	47.133	48.896	75.820	97.628
Citroën Xsara 1.6 i Tonic 5 ate	51.761	53.524	94.100	115.939
Ford Fiesta 1.1 Calypso 3 ate	45.824	47.587	67.387	82.633
Audi A4 1.9 TDI Ambition	61.597	63.360	168.235	228.411
Renault Clio 1.2 Alize 3 ate	47.133	48.896	75.820	97.628

Prezio denak: urte osokoak; 31 urteko gidaria, 11 urteko karneta, emakumea eta ezkondua; justifikatu beharreko %30eko deskontua barne.

Eta Mapfrerekin azkartu  itzazu zure bonifikazioak

 **MAPFRE**

Simon Arrieta plaza 3, Bergara. Tf. 943 76 18 80.



egunerokoak

Erabili eta botatzeko
lentilla

Eta gainera,
90 egunerako
lentillak erosita,
poltsa hau zuretzat



2.400 pta

proba itzazu!

Erabili eta botatzeko
lentilla **hilabetekoak**

Dohaineko proba!



**BAUSCH
& LOMB**

Eta 3 hilabeteko
"pack"-a erosita
toaila hau zuretzat



Promozioa 1999ko uztailearen 15 arte

MULTIOPTICAS LARRAÑAGA

Ibargarai, 16 - BERGARA - Tel. 943 76 15 75
J. Carlos Guerra, 1 - ARRASATE - Tel. 943 79 29 95
J. M. Barandiaran Enp - ORDIZIA - Tel. 943 88 99 88

JAKINA

Zeramika ulertzeko beste modu bat



Zure etxeko bainua berritu eta altzariak jarri aurretik, zatoz Jakinara.

Diseinua, kalitate/prezio erlazio bikaina eta **saldu osteko zerbitzu** ezin hobea eskaintzen dizugu.



6 URTEKO
GARANTIA



Sukaldeko altzariak

JAKINA, bainugelak, zeramika eta sukaldeak

San Lorenzo Industri Poligonoa, Amillaga 10, behea. BERGARA.

Telefona: 943 76 03 30. Faxa: 943 76 02 91.